

Kultura

Kaleko banden musikak Zornotza girotuko du
asteburu osoan Haizetara lehiaketagaz > 11

JAIK!

ATXONDO
BERRIZ

Ermodon eta Muruetan airearen kalitatea hobetzeko eskatu dute

Maristetako ikasleek Durangoko airearen kalitatea ikertu dute. Emaizta onargarriak direla diote, baina Ermodon eta Muruetan hobetzeko aholkatu dute

Maristak ikastetxeko batxilergoko lehenengo mailako ikasleek Durangoko airearen kalitatea ikertu dute IK-4 Azterlanen laguntzagaz. Orokorrean airearen kalitatea onargarria dela aurreratu duten arren, Ermodo eta Murueta kaleetan hobetu dadila aholkatu dute. Durangoko zazpi gunetako airea ikertu dute hamabost egunez, nitrogeno oxidoak neurtzeko hodiak jarrita. Ermodo eta Murueta "gune sentikor" gisa sailkatzeaz gainera, hainbat gomendio eman dituzte: trafikoa lasaitzeko ekintzak garatzea eta ibilgailu elektriko-koen erabilera sustatzea. >4

Irudi modernoa eta lelo ekintzailea dakartza Ibilaldia

Durangoko Ibilaldia 2016 antolatzeko makineria martxan da Kurutziaga eta Ibaizabal ikastoletan. 'Dagigun!' goiburugaz auzolanari ekin diote dagoeneko hainbat gurasok eta irakaslek. Bihar, arropa denda inauguratuko dute Barrenkalean. >15



Lehior Elorriaga

90 GRADU
LAN BERTIKALAK
TRABAJOS VERTICALES

**FATXADA ETA PATIOEN
KONPONKETAK ETA MARGO LANAK**
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Tel.: 616 413 660
info@90gradu.com
Bernagoitia auzoa, 14 - ZORNOTZA

ALDAMIORIK GABE

11'90 €

**McMenu® Grand
McExtrem™ertain 2**

**Ospatu gurekin
gure urteurrena**

Eskaintza baliagarria da McMenu ertainarentzat, Grand McExtrem Originalarentzat eta Grand McExtrem Baconarentzat. 2015eko ekainaren 15etik ekainaren 30era. Ezin zaio bestelako eskaintza edo promozioi gehitu.

Zure McDonald's Abadiño jatebtxean bakarrik

Garai > 9

Ametxorbe mendia eskuratu du udalak, polemika artean

Abadiño > 8

Yogaren Nazioarteko Eguna dela eta, Urkiolan topaketa egingo dute

Durango > 4

500 lagunetik gora, udalagaz tratua euskaraz izateko eskean

Elorrio > 9

Aldapebeitia jauregia berrituko du Elorrioko Udalak

Herririk herri

Gobernu aldaketak gertatu dira Elorrioko eta Mallabiko udaletan

EH Bilduko Buruaga izendatu dute Elorrion, eta Igor Agirre jeltzalea Mallabian

DURANGALDEA J.G.

Joan zen zapatuan, ikusmin handia zegoen Elorrion, udala eratzeko bilkuran. EH Bilduren eta EAJren berdinketa Herriaren Eskubidea (Podemos) alderdiak hautsiko ote zuen zen zalantza. Azkenean, Juan Pedro Gallastegi zinegotziak zuriz bozkatu zuen, eta horrek EH Bilduko Idoia Buruagari alkatezara heltzeko atea zabaldu zion. Buruagak eztabaidarako deia egin zuen bere berbaldean: "Eztabaida dezagun. Elorriarrek eskertuko digute". Gainera, esan zuenez, "Elorrio aitzindaria izan da esparru askotan, eta elkarbizitzan ere aitzindari izan gaitzkeela uste dugu". EAJk, berriz, oposizio arduratsu eta zorrotza egingo duela aurreratu zuen, "ezker abertzalearen diru xahutze garaira ez bueltatzeko". Herriaren Eskubidea alderdiko Gallastegi zinegotzia, ostera, "gaiz gai bi indar politikoekin adostasunak bilatzen" saiaturiko direla azaldu zuen.

EAJ hiru botorengatik

Mallabian ere alkatetzan aldaketa izan da. Hiru botoren aldeagatik EAJk bost zinegotzi lortu zituen. Beraz, Bilduko Mila Mondragonek aginte makila eman zion Igor Agirreri, hurrengo lau urteotan gobernu taldearen buru izan dadin.

Gainerako udaletan ez zen ezustekorik gertatu. Durangon, PSE-EEren aldeko bi botoei esker Aitziber Irigoras jeltzaleak alkate karguan jarraituko du agintaldi honetan. Irigorasek esan zuenez, "ohorea da durangarren alkatea izatea". Gaineratu zuenez, "langabezia da durangarren arazo nagusia, eta arlo horretan lagundu gura dugu". Dani Maeztu EH Bilduko zerrendaburuak, aldiz, herritarrekin batera lan egingo dutela esan zuen, hartutako 201 konpromisoak betetzeko. Agintaldi honetan lehenengoz politikagintzaren ibilbideari ekin dion Herriaren Eskubidea (Podemos) alderdiko Julian Rio-

sek "sistema injustua" aldatzen saiaturiko direla eta "politika sozialen alde" egingo dutela azaldu zuen.

Zornotzan, Andoni Agirrebeitiak hartu zuen aginte makila David Latxaga alderdikide jeltzalearen eskutik. Zaldibarren, Arantza Baigorrik (EH Bildu) alkate jarraituko du beste lau urtez. Bere berbaldean, bere birraitona nafarra, fusilatua izan zena, ekarri zuen gogora. Berrizen, Orland Isoirdek, alkate izendatu eta gero, bozka eman ziotenei eskerrak eman zizkien. Abadiñon, Jose Luis Navarrok alkate izaten jarraituko du. Iñaki Totorikaguenak Iurretan, Gontzal Sarrigoitiak Garain eta Endika Jaiok Mañarian ere alkate karguan jarraituko dute. Atxondon, Rosa Elizburuk David Cobos EH Bilduko alderdikideari eman zion lekukoa. Otxandion eta Izurtzan ere EH Bildu izango da gobernuan, Urtzi Armendarizek eta Lorea Muñozek lekukoa hartu ostean.



Idoia Buruaga EH Bilduko alkatea, Elorrion.



Mallabiko udalbatza Igor Agirre alkate izendatu ostean.

'Herriko tabernak' ixtea berretsi du Gorenak

DURANGALDEA M.O.

Herriko tabernen auziaren harira, Auzitegi Nazionalak taberna horiek itxi, eta enbargatzea agindu zuen, eta atzo Auzitegi Gorenak epai hori berretsi zuen. Auzian zeuden 111 tabernetatik 107ri ezarri dio zigorra, eta tartean daude Durangoko Intxaurre, Elorrioko Portalekua, Zornotzako Belatxikieta, Zaldibarko Castet, Mallabiko Izar Gorri eta Otxandioko Kementsu.

Bestalde, hainbat auzipeturi zigorra murriztu die Gorenak,

bere sasoian Auzitegi Nazionalak egin zuen moduan. Enrike Alaña durangarra ere urtebete eta hiru hileko kartzela zigorrera zigortu zuten, baina denbora hori bete zuen espetxean behin-behinean zegoenean.

Hainbat auzipeturi zigorra murriztu die Gorenak, bere sasoian Auzitegi Nazionalak egin zuen moduan

Txupinazoagaz ekingo diete San Joan jaiei, Matienan

Greziarren mozturro jaia prestatu dute biharko



Iaz, lurretako San Joan suan ateratako argazkia. Idoia Elorriaga

DURANGALDEA J.G.

San Joan egunak tradizioa eta ekitaldi berriak uztartuko ditu, aurten. Abadiñon, esaterako, sortu berri duten Sanjuanada elkarteak egitarau oparoa antolatu du Traña-Matienako Praza Galizia plazan. Biharko txupinazoagaz eta Juantxuren jaiatsieragaz abiatuta, egun osoko egitaraua prestatu dute. Berrizen, Bricadeira perkusio taldeak Elizondotik Berrizbururako kalejira girotuko du, eta, ostean, sua piztuko dute. Durangon, Herria auzo elkartearen ekimenez, *Cocina vegana del mundo* liburua aurkeztuko dute, ekainaren 23an, eta, ostean, sua isiotuko dute San Roken (*Agenda* sailean informazio gehiago).

anboto komunikabideakBixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558Erredakzioa:
946 232 523Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org2015eko ekainaren 19a,
13. urtea - 594. alea**Zuzendaria:**

Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua:

Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa:

Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea:Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.**Erredakzioa:**Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.**Maketazioa:**

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea:

Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kurutziagako eta Ibaizabaleko ekintzaileak prest daude Durangoko 2016ko Ibilaldia antolatzen

2016ko Ibilaldia Durangon egingo dute, 'Dagigun!' lelopean; gurasoak martxan daude, eta arropa denda bihar zabalduko dute



Ezkerretik eskumara, Fernandez, Markoida, Elorriaga, Sarraoa, Azpitarte eta Elorrieta. Lehiar Elorriaga

DURANGO Markel Onaindia Kamisetak koloreka sailkatu, banan-banan tiketak ipini, denda txukundu... Urtebete falta da oraindik 2016ko Ibilaldia heltzeko, baina Kurutziaga eta Ibaizabal ikastoletako guraso ekintzaileak prest daude erronkari ekiteko. Ibilaldia antolatzen lantaldeka banatu dira, eta arroparen salmentaz arduratzen den taldekoak izan dira goiztiarrenak. Izan ere, materiala ahalik eta lasterren salgai ipintzeko asmoz, otsailean hasi ziren batzartzen. Aitziber Fernandez, Idoia Markoida, Idoia Elorriaga, Bego Sarraoa, Oihana Azpitarte eta Jon Elorrieta dira arroparen batzordeko kideetako batzuk.

Dagigun!

Joan zen barikuan aurkeztu zituzten Ibilaldiko logoa eta leloa. *Dagigun!* izango da goiburua, eta indar askokoa eta aktibitatezkoa iruditu zaio Elorriagari: "Guk egin dezagun ekintza, denon artean, mugimenduan".

Zelako animoz dauden galdetuta, "gogotsu" daudela erantzun dute denek, eta "urduri" ere bai baten batek. Gurasoen ilusioa nabarmendu du Elorrietak: "Taldea honetakook ordu pilo sartu dugu. Ardura da, baina ilusiorik ez badago, hori ez da lortzen". Gainera, boluntarioen lana eskatu dutenean, orokorrean, gurasoen erantzuna ona

izan dela esan du. Azpitarte ere iritzi berekoa da: "Denda prestatzeko, txanda egitea eguazteen zegokion jendea eguenean ere etorri izan da".

Ibilaldiagaz aterako duten dirua Kurutziagako Haur Hezikuntzako eraikina berrizteko eta Ibaizabalerako beste eraikin bat egiteko erabiliko dute. Horregatik, lan egiteko beharra

29

2016ko maiatzaren 29an
izango da
Durangoko Ibilaldia

ikusten du Elorriagak: "Ibilaldia guk sinisten dugun proiektu baten alde da, ekonomikoki bultzada bat emateko". Hain zuzen ere, Elorrietak kontatu duenez, boluntarioen lanean ikusten dute Ibilaldiaren arrakastaren giltza: "Auzolan ona egiten badugu, Ibilaldi ona izango da".

Taldeak osatzeko, batzar batera deitu zuten arduradunek. "Batzarrera jende pilo etorri zen", gogoratu du Sarraoak. Beraz, *Dagigun!* leloa eta gurasoen ekintzailetasuna bat datoz.

Beste Ibilaldi mota bat

2016ko maiatzaren 29an izango da Durangoko Ibilaldia, eta oraindik urrun ikusten dute

eguna. Baina hasi dira irudikatzen. Bestelako Ibilaldia egin gura dute, hori lortzea gaitza dela onartu arren. "Ibilaldiari beste kutsu bat eman gura diogu. Berrito atzera egin, eta lehengo Ibilaldietara joan gura dugu. Adibidez, ibilbidea egiteko ilusioa berreskuratu gura dugu. Ibilaldia botiloi gune bihurtu da, beste edozein jai izango balitz bezala", adierazi du Elorriagak.

Antolaketan badago esperientziadunik. 2005ean egin zuten azkeneko Durangon, *Eman bostekoa* lelopean. Bertan beharrean egon ziren Elorriaga eta Elorrieta, ikasle ohi zirelako, eta Sarraoa, guraso zelako. Ondo gogoan du Sarraoak: "Azken hamabost egunak gogorak izan ziren, lo gutxi egin genuen. Denda Goienkalean geneukan, eta biltegia Ezkurdin; arineketa ibili behar izaten genuen, txosnak ere muntatu behar ziren...". Akorduan du Ibilaldi egunean euria bota zuela, baina eskerrak tiketak saldu ostean hasi zen...

Denda, laster zabalik

Barrenkalean, udaletxearen alboan, zabalduko dute Ibilaldiko denda bihar, 12:30ean. Bertan, 80 erreferentzia dituzte materialean. Eguaztenetik barikura goiz eta arratsalde egongo da zabalik, eta zapatuetan goizez. Abadiñoako Hiper Eroskin ere salgai izango dute Ibilaldiko arropa.



Ekoden

HORTZ KLINIKAK
CLINICA DENTAL

Inplanteak jarri



eta hurrengo egunean
PROTESI BERRIAREKIN
mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN, 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15%

-rainoko
DESKONTUAK

WEB GUNeko TARIFETAN

Kontsultatu gure tarifak hemen:
www.clinicaekoden.com



* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketarako, banku-finantzaketa kudeatzen dugu. R.P.S. 44 / 14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

500 lagunetik gora, udalagaz tratua euskaraz izateko eskean

EHEk 'Udalak eta biok euskaraz' dinamika garatu du herritarrekin batera



Zabalarra ikastetxeko irakasleek ere eskatu dute udal zerbitzuetako arreta euskaraz jasotzea.

DURANGO Markel Onaindia Euskal Herrian Euskaraz elkarrekin sustatuta, udalagaz tratua euskaraz izatea eskatu dute 500dik gora lagunek. Izan ere, EHEren arabera, herritarrek euskaraz berba egiteko ezintasunak topatzen dituzte udal zerbitzuetako beharginekin. Nagusien egoitzan, Pinondo

Kiroldegian, esate baterako, arreta ez dela euskaraz bermatzen kritikatu du EHEk

Etxean, kiroldegian eta musika eskolan, adibidez, arreta ez dela euskaraz bermatzen kritikatu du euskararen aldeko elkarteak.

Egoera horri buelta eman guran, EHEko kideek *Udalak eta biok euskaraz* dinamika ipini zuten martxan, iaz, eta, aurten, horren jarraipena egin dute. Herritarrekin eta elkarteekin batu

dira, eta baita Zabalarra, Kurutzia eta Ibaizabal ikastetxeetako irakasleekin ere, esaterako. Guztira, 500dik gora herritarrek parte hartu dute, eta asteon herritarren eskaera horiek udal txean entregatu dituzte.

Udalari, erabaki eske

Iazko dinamikaren aurrean udalak izandako jarrera kritikatu du EHEk: "Iaz tramitatutako eskaeren aurrean, Durangoko Udalaren erantzuna eta jarrera ez ziren bat ere arduratsuak izan". Horregatik, eskubideak betetzeko deia egin dio udalari: "Espero dezagun datozen lau urteetan erantzukizunez jokatzea, eskaeretako nahia entzun eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko erabakiak hartzea".

Dinamikan parte hartu dutenei eskerrak eman dizkie EHEk, eta parte hartu ez duten eragileei hurrengo aldietan inplikatzeko gonbidapena egin die, "denon artean Durango euskaldunago bat eraikitzeko".

Gorka Fraile ospitaletik kartzelara eraman dute

Badajozeko kartzelan dago Fraile, "animoz ondo"

DURANGO M.O.

Gorka Fraile preso durangarra Badajozeko (Espainia) ospitaletik kartzelara eraman zuten martitzenean, bere osasun egoera eboluzio onean doalako. Aspetete lehenago ebakuntza egin zioten Fraileri, mingaineko minbizia sendatzeko helburuz; koskor bat kendu zioten mingainetik, eta gero injertoa egin zioten. Ainhoa Sergio lehengusinak eguaztenezan beragaz berba egin ahal izan zuen telefonoz, eta "animoz ondo" dagoela azaldu du. Baina ebakuntza egunetan poliziekin gertatutakoa gaitzitzea kostako zaiola esan zion Frailek lehengusinari.

"Tratu ankerra"

Frailek poliziaren partetik jasotako tratua salatatu du familiak.

Ospitalean zela, une oro polizien zaintzapean zegoen, eta ebakuntza egin aurretik esku-burdinak ipinita eduki zituen. Senideen arabera, eten barik zaratak egiten eta musika ipintzen ibili zitzaizkion, eta hori gaixoaren lasaitasuna apurtzeko egin zutela uste dute. Horregatik, "tratu ankerra" izan zela salatatu dute.

Emaitzak, hiru astera

Ainhoa Sergiok kontatu duenez, orain ahoko puntuak kendu, eta sendaketak egingo dizkiote. Medikuek kendutako koskorra aztertzen dabilta, eta emaitzak hemendik hiru astera emango dituztela esan du Sergiok. Emaitza txarra bada, erradioterapia tratamendua hartu beharko du presoak.

Ermodon eta Muruetan airearen kalitatea hobetzea aholkatu dute

Maristak ikastetxeko ikasleek Durangoko airearen kalitatea aztertu dute

DURANGO M.O.

Maristak ikastetxeko batxilergoko lehenengo mailako ikasleek Durangoko airearen kalitatea ikertu dute, eta, orokorrean

emaitza onargarriak atera badi-tuzte ere, Ermodo eta Murueta kaleetan kalitatea hobetzea aholkatu dute. IK4-Azterlanegaz batera garatu dute ikerketa, eta

arduradunek azaldu dute estatu mailan berritzailea izan dela, ikasleek egin dutelako. Ikasleak ingurumenagaz sentsibilizatzea gura zuten.

Durangoko zazpi gunetan aztertu dute airea, hamabost egunez nitrogeno oxidoak (NO eta NO2) neurtzeko hodi batzuk ipinita. Ermodo eta Murueta kaleak "gune sentikorrek" direla ondorioztatu dute, eta udalari NO2aren jarraipena egiteko eskatu diote. Gainera, trafikoa lasaitzeko ekintzak garatzea eta ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatzea proposatu dute. Maristetako arduradunen arabera, ikerketa baliogarria izan dela erantzun diete udalean, eta 2010-2025 Mugikortasun Planean Ermodo kalea oinezkoentzat egoitza aurreikusitako dutela ere bai.



Maristetako ikasleak, Azterlaneko Ander Areitioaurtenaren azalpenak entzuten.

hitz #gomendioak
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Jon Irazabal eta Raquel Calvo (2015)	Manu Arregi, Txilliku eta Uxue Alberdi (2015)	Khantoria (2015)

Chimeneas
Cerámicos MACOBER

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

BAQUÉ
·Café·

Zure udarik freskoena

Smoothies
Ice Teas
Frappés

The advertisement features three glasses of beverages on a white surface. The background is a blurred tropical scene with palm trees and a blue sky. In the foreground, there are fresh ingredients: a strawberry, blueberries, blackberries, and coffee beans. To the left, there are several ice cubes. The drinks include a smoothie with a strawberry garnish, an iced tea with orange slices and a mint leaf, and a coffee-based drink with a dusting of powder and a blueberry garnish. Two straws, one black and one orange, are inserted into the coffee drink.

Musikaren esanahia ondoen islatu duen erakusleioa sarituko dute etzi

Erakusleio lehiaketaren orain arteko aldi biak Stoner dendak irabazi ditu



Stoner arropa dendaren aurtengo erakusleioa. Goretzi Serrano

ZORNOTZA Joseba Derteano Kaleko musika banden Haizetara jaialdiaren harira, Dendariak elkarteak erakusleio lehiaketa antolatu du hirugarrenez. Ohi moduan, erakusleioak atontzeko gaia *musika* izan da, eta saltoki parte-hartzaileek hamar egun izan dituzte euren lanak erakutsi, eta herritarrak konbentzitzeko. Sari banaketa ekitaldia domekan, 13:00etan, egingo dute, Zelaieta parkeko kioskoan.

Aurten, hamar dendek parte hartu dute lehiaketan: Bicis Cañas Bizi, Arri, Intelek, Aitor bitxi denda, Men's, Ponpak, Sirun XI, Tipi-tapa, Tres eta Stoner. Orain arteko lehiaketa biak Stoner arropa dendak irabazi ditu.

Gehien gustatzen zaien erakusleioaren alde bozkatzeko

ko aukera dute herritarrek. Horretarako, lehiaketan parte hartzen dabiltzan dendetan aurkitu daitekeen bozka-orria bete, eta Zelaieta zentroan kokatu duten kutxan sartu behar da. Zapatuko 13:00ak arte dago bozkak emateko aukera. Dendariak elkarteak Facebooken duen orrialdearen bidez ere bozkatu daiteke lehiaketan.

Herritarrek gehien gustatzen zaien erakusleioa bozkatu dezakete bihar arte

Sariak parte hartzaileentzat Bozketan parte hartzen duten herritarren artean hamar txartel zozkatuko dituzte antolatzaileek. Txartelak 20 eurokoak izango dira, baina 30 euroko balioa izan dezakete, beti ere irabazleek txartelak lehian ibili diren dendetan erabiltzen badituzte.

San Pedro jaiak Boroan, ekainaren 27tik aurrera

ZORNOTZA J.D.

Boroa auzoan San Pedro jaiak ospatuko dituzte ekainaren 27tik uztailaren 5era, Anaitsuna elkarteak antolatuta. Jaien lehenengo egunean txupinazoa jaurtiko dute, 19:00etan, eta, 22:00etan, Zeinke taldearen kontzertua hasiko da.

Ekainaren 28an, txistularien eta Udabarri dantza taldearen saioak izango dira 13:00etatik aurrera. Ekainaren 29a San Pedro eguna da, eta herri bazkarian elkartuko dira auzotarrak; ondoren, briska txapelketa hasiko dute.

Uztailaren 4an, goizean eta eguerdian, txakurren txapelketa eta paella txapelketa egingo dituzte, eta 22:00etatik aurrera idi probak izango dira. Jaiak amaitzeko, azkenik, uztailaren 5ean, bazkideentzako bola joko eta igel txapelketa egongo dira, besteak beste.

Iurretako Gazte Eguna ospatuko dute bihar

IURRETA A. Basauri

Iurretako gazte asanbladak Gazte Eguna antolatu du biharko. Herri bazkariagaz hasiko dute eguna, 14:30ean, eta Aita San Migel plazan elkartuko dira (tiketak Gauargi tabernan hartu daitezke 8 euroan). 16:30erako, ostera, kantutxoak hasiko dira. 18:30ean, olinpiadak hasiko dituzte Amilburun, eta, herri guztian ibiliko dira. 20:00etan, trikitilariak alaitutako poteoa egingo dute eta, 22:00etan, kontzertuak hasiko dira: Pixontxis, El Exterminio de la Raza del Mono eta Denbora Galdua. Ostean, hasi gura duen "aro berria" aurkeztuko du gazte asanbladak. *Flupy Hour*-a egongo da 04:00ak arte: orduro txupito bat emango dute asanbladako eskumuturrekoa erakutsiz gero.

18:30ean, olinpiadak hasiko dituzte Amilburun, eta, herri guztian ibiliko dira. 20:00etan, trikitilariak alaitutako poteoa egingo dute eta, 22:00etan, kontzertuak hasiko dira: Pixontxis, El Exterminio de la Raza del Mono eta Denbora Galdua. Ostean, hasi gura duen "aro berria" aurkeztuko du gazte asanbladak. *Flupy Hour*-a egongo da 04:00ak arte: orduro txupito bat emango dute asanbladako eskumuturrekoa erakutsiz gero.

40 atxondar Arrazolako Pala Txapelketaren bila

Urterik urtera jende gehiagok parte hartzen du

ATXONDO J.D.

Arrazolako III. Pala Txapelketa abian da, eta 40 atxondar dabiltza lehian -inoizko gehien-, txapela lortu guran. Kirolaz harago, euren arteko hartu-emanak sendotzeko bitartekoa dela

azpimarratzen dute parte-hartzaileek.

Pilotariak hiru mailatan banatu dituzte. Txapelketa da, baina liga bateko egitura du, igoerak eta jaitsierak ere izaten direlako. Arrazolako pilotale-



Oier Jaio eta Gaizka Amiano orain arteko aldi bietako txapelak.

kua txikia eta berezia da, eta horrek xarma berezia ematen die partiduei Ibai Buruaga kudeatzailearen esanetan: "Joko arina da, eta fisikoki exigentea. Pilotalekuaren berezitasunagatik lege propioak ditugu; esaterako, harmailak gertu daudenez, handik bueltan jo daiteke pilota".

Oier Jaio eta Gaizka Amiano lehian eta bigarren aldiko irabazleak dira, hurrenez hurren. Iaz elkarren kontra jokatuak finala Amianok irabazi zuen. Batak zein besteak txapelketan sortzen den giroa azpimarratu dute: "Badaude hainbat herritar, txapelketa baino lehen elkar agurtu arren, elkar ezagutzen ez zutenak, eta, orain, ostera, partiduak jokatzeko geratzen dira. Txapelketako gauzarik onena sortzen den giroa da, ez dago hori ordaintzeko dirurik", azaldu du Amianok. Lehia sarioa ere bada osagaietako bat.

Finalak irailan izango dira. Irabazleek txapela jantziko dute, eta eguneko bazkaria eta parranda dohainik izango dituzte.

Saria euskaraz egindako entrenamenduei

BERRIZ Amaia Ugalde

Ikasturtea amaitzeko, zapa-tuan, eskolako jaiak izango dute Learreta-Markina ikastetxean. Jaiak, besteak beste, eskolaz kanpoko jardueretan euskara gehien erabili duten taldeak sarituko dituzte: kirol anitzeko talde bat eta pilota talde bat. Gainera, Berbalagun egitasmoak *zumba* ikastaroa eskainiko du.

Euskara eskolak, udan

Uztailaren 3tik 24ra euskara eskolak eskainiko ditu Berrizko AEK-k. EGA azterketa prestatzeko edo beste maila batzuetako ikastaroak izango dira, eta ekainaren 23ra arte eman daiteke izena. Goizez izango dira eskolak. Udalak asistentziaren arabera diru-laguntza emango du, eta udaletxean bertan eman daiteke izena.



ibaizabal

IKASTOLA

DURANGO

Ur instalazioetako soroslea
// 290 ordu

Mendeko pertsoneri gizarte eta osasun arreta ematea // 370 ordu

Komunitate bitartekotza
// 50 ordu

DOAKO IKASTAROAK
TITULU OFIZIALAK

Izen-ematea:
lanbide.net

Harremanetarako:
ikastaroak@ibaizabalikastola.org
Tel.: 946 215 877






clínica dental

b. unamunzaga

hortz klinika

e. etxebarria



RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

**RENAULT**
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**

**RENAULT**
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSAArriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

Yogaren Nazioarteko Eguna dela eta, Urkiolan batuko dira, domekan

Izen-emategaz bildutako dirua Nepalgo kaltetuei laguntzera bideratuko dute



Ricardo Riera eta Oier Estankona yoga irakasleak dabilza domekako ekintzak antolatzen.

ABADIÑO Itsaso Esteban
Yogaren Nazioarteko Egunaren harira, saio berezi bat egingo dute, domekan, Urkiolan. Nazio Batuen Erakundeak aurten izendatu du egun hori, ekainak 21, yogaren egun ofizial, eta mundu guztian egingo dira Urkiolakoaren antzeko ekintzak. “Beti egon da espiritualtasun berezi bat Urkiolan”, antolatzaileen ustez. “Oso energia berezia du lekuak, oso aproposa da honelako ekintza bat egiteko”.

Parte-hartzaileek izena ematean ordaindu duten dirua Nepalgo kaltetuei laguntzera bidaliko dute, Amics del Nepal GKEaren bitartez. Izan ere, ekintza antolatzen ibili den Oier Estankona Dharananda yoga zentroko irakasleak azpimarratu duenez, “yogak eta Nepalek lotura berezia dute, budismoan daudelako yogaren sustraiak”. Lurrikaren ostean, yogaren inguruan dabilen jendea asko solidarizatu da nepaldarrekin.

Domekan bertan ere egin ahalko da inskripzioa. “Hasi berrirei, yoga sekula egin ez dutenei... Interesa duten guztiei zabalik gaude”, adierazi du Estankonak. Arropa eroso, esterilla bat eta meditaziorako kuxin bat baino ez dira behar.

09:00etatik 15:00ak arteko egitaraua antolatu dute domekarako, Urkiolan. Yoga terapeutikoa eta umeentzako, *tai chia* eta meditazio kontzertu bat ere izango dira, besteak beste.

Jai giroan gertatzen diren eraso sexistak prebenitzeko

ZALDIBAR I.E.

Emagin elkarteko Idoia Arraiza Zabalegik gidatuko du ekainaren 24ko tailerra. Emakumezkoen zein gizonezkoen dago zuzenduta, eta, datorren eguaztenean, 18:00etatik aurrera, udaletxean egingo dute. Jaietan gertatzen diren eraso sexistaren prebentziorako kanpainaren barruko ekimena da, eta udaleko Berdintasun Sailak antolatu du.

Idoia Arraiza Zabalegik gidatuko du ekainaren 24ko tailerra udaletxean, 18:00etatik aurrera

Indarkeria sexistak, milaka aurpegi: jaietan ere, denak ez du balio da tailerraren goiburua, eta jai giroan gertatzen diren erasoak hartuko dituzte ahotan. “Indarkeria sexistaren makinaria orokorra identifikatu, eta horri zelan aurre egin” landuko dute parte-hartzaileek.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Laster arte

Miskiren bitartez jakin izan nuen zure minbiziarena, eta Ainhoaren bitartez ebakuntzarena. Horregatik *wasap* mezua heldu zitzaidanean banekien gertatutakoa gertatu ahal zela. Mendekuaren politikaren morroiak giza kondizioaren azken mailan kokatu ziren berriro ere, gaixo dagoen eta ebakuntzaren zain dagoen preso bati gorriak pasarazten. *Wasap* mezua arin zabaldu zen, 17 urte hauek ez dute elkartasuna apurtu. Eta jarraian rugbyko beterranoen txatetik heldu zitzaidan notizia berriro ere, eta gero hainbat lagun eta ezagunen bitartez. Lehen tabernetako konbertsazio zirenak orain *Wasapeko* foretan egiten ditugu, garapena dela esaten dute.

Hasieran, amorrua sentitu nuen; gero, laguntzeko gogoia etorri zitzaidan; ondoren, hausnarketari ekin nion: Zer gertatzen zaio gure gizarteari, giza eskubideen urraketen aurrean, kasu batzuetan, irmo agertzen den gizarte horri? Zergatik bereizketa hori giza eskubideen urraketekin? Zergatik begiratzen du beste alde batera kasu konkretu batzuetan?

Hau ez da pertsona, familia edo kolektibo zehatz baten arazoa. Horrela, giza eskubideak urratzen direnean gizarte osoak du arazoa. Eta ez nabil, soilik, zure kasu zehatzaren inguruan hitz egiten. Sakabanaketa, preso gaixoen egoera, eta, oro har, XXI. mendean euskal herritar batzuek pairatzen duten egoera oinarritzko eskubideen urraketa onartezina da.

Besarkada handi bat. Sapuzaharren taldean zure zain gaude.

San Joan jaiak ospatuko dituzte Goita auzoan

Txopoa altxatu, eta San Joan suak piztuko dituzte

MALLABIA Joseba Derteano
Ekainaren 23an, San Joan bezperan, ekingo diete Goita auzoko jaiak, Mallabian. 19:00etan, Txopoa altxatuko dute, eta, ondoren, San Joan suak piztuko dituzte. Ekainaren 24an, San Joan egunez, meza izango da, 12:00etan. Arratsalderako, ostera, briska txapelketa antolatu dute.

Asteburura begira ere hainbat ekitaldi aurreikusi dituzte. Barikuan, auzo bazkarian bilduko dira. Zapatuan, berriz,

txinga eroatea eta tortilla txapelketa izango dituzte. Asto probekin amaituko dute eguna.

Ekainaren 28an, meza izango da, 11:00etan. Mallabiko Gazte Alai dantza taldeak erakustaldia eskainiko du, eta Aimar Irigoienek harri-jasotze erakustaldia egingo du. Paella txapelketagaz biribilduko dute goiza. Gero, umeen jolasak, tute txapelketa eta bola joko txapelketako sariak banatuko dituzte. Txokolatada eta errifen zozketa-gaz amaituko dituzte jaiak.

Egun osoko ospakizuna dute, gaur, eskolako jaietan

Musika, kirola eta jai giroa nagusituko dira

OTXANDIO J.D.

Otxandioko eskolan ikasturte amaierako jaiak antolatu dute gaurko, eskolaren eta guraso elkartearen artean. Goizetik iluntzera, egun osoko egitaraua izango dute.

Eskolan bertan, 10:00etan, umeentzako tailerrak eskainiko dituzte. Ondoren, jaietan parte hartzen dabilzanek herri bazkaria egingo dute eskolako pilotalekuan. Arratsaldean, herriko plazan jarraituko dute jaiagaz, eta 17:00etatik aurre-

ra umeen jolasak izango dira. Ordu berean, gura duenak gaztetxoentzako triatloietan parte hartu ahal izango du. Triatloietako proba bat igerian denez, igerilekuan ipini dute hitzordua.

Proba eta jolas horien ostean, 18:30etik aurrera, AZ Gaubela taldeak musikagaz eta askoritariko erritmoekin osatutako ikuskizuna eskainiko du udal-txe pareko plazan. Jaiari amaiera eman aurretik, 20:30ean, txokolatada egingo dute.

CRIS ACADEMIA
Musiko Altuna, 11 behea
48200 Durango
Tel.: 606 368 929

KET, PET, FIRST eta ADVANCE ikastaroak

Goizez ordutegia adosteko aukera dago.
Ingeles maila guztiak eskaintzen ditugu.

A. Urreta podologoa

Binara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 · DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214008

Moreno, Herrero eta Ugarriza absolbitu dituzte

ELORRIO M.O.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak Niko Moreno, Josu Herrero eta Rita Ugarriza absolbitu egin ditu. 2010eko martxoko udalbatzarrean atxiloketa baten inguruko mozio bat lantzen zebiltzan, eta herritar ugari bertaratu ziren. Horien artean "faxista" deitu ziotela eta iraindu egin zutela salatu zuen Mari Carmen Muñoz orduko PSE-EEko zinegotziak. Salaketaren arabera, Josu Herrero eta Rita Ugarriza ziren horietan.

Joan zen astean egin zuten epaiketa, eta epaileak hirurak absolbitzea erabaki du

ko bi. Niko Moreno zen orduko alkatea, eta sortu zen egoera hura saihestu ez izana leporatzen zioten.

Zigor eskaerak

Akusazioak eta fiskalak launa urteko kartzela zigorra eskatu zuten Herreroentzat eta Ugarrizarentzat, eta urte biko Morenoentzat. Joan zen astean egin zuten epaiketa, eta epaileak hirurak absolbitzea erabaki du. Eguaztenean eman zuten epaiaren berri.

Epaiketa otsailean hasi behar zen, baina azken orduan grabazio bat aurkeztu zuen akusazioak, eta horrek atzerapena ekarri zuen.

Ametxorbe mendia eskuratu du udalak

Berrizko lurretan dago Ametxorbe mendia, eta urrian polemika piztu zen, nekazari batek lurra erosi zuelako



ENBA sindikatuko kideek protesta egin zuten aurreko batzar batean.

GARAI Markel Onaindia Berrizko lurretan dagoen Ametxorbe mendia eskuratu du Garaiko Udalak, joan zen asteko udalbatzarrean lurrak bereganatzeko eskubidea aplikatu eta gero. Izan ere, Garaigaz mugakide da mendia. 2014ko urrian, lur-jabeak Berrizko Aitor Biritxinaga nekazariagaz salmentarako akordioa lortu zuen, eta, martxoan, Garaiko Udalak lurrak eskuratzeko intentzioa agertu zuenean, polemika piztu zen. Biritxinagak lurrak ez kentzeko eskatu zion udalari.

Herriko Taldeak erosketaren zergatia azaldu, eta publikotasuna defendatu du: "Mendi hau erosi bada, denon intereserako

izan da". Ondare publikoa, us-tiapena eta abereentzako larrea hobetu gura dituzte, eta "Garai eta inguruko udalerrietako auzotarrentzat aberastasun garrantzitsua" izango dela uste dute. Beraz, lurrak ez dira garaitarrentzat bakarrik izango.

EAJk kontra bozkatu zuen: "Garaiko abeltzainei lagundu behar zaie, baina laguntza hori ezin da beste batzuen bizkar izan". Gainera, lurrak erosteko 60.000 euroak beste lehentasun batzuetan gastatzea defendatu zuen. Baina Herriko Taldeak gogoratu du diru hori Aldundiko Hobekuntza Fondotik datorrela, eta ezin dela beste azpiegitura batzuetarako erabili.

26 umek parte hartuko dute udalekuetan

MAÑARIA M.O.

Mañariko Udalak antolatuta aurtengo udalekuetan, 26 umek parte hartuko dute. Ekainaren 24tik uztailearen 24ra bitartean garatuko dira, goizez, 09:30etik 13:00etara. Bertan, begiraleen eskutik, denetari-ko ekintzak egin ahal izango dituzte umek: esate baterako, tailerrak, jolasak, eskulanak, antzerkia eta ur jolasak.

Errore Bustintza kultur etxea izango da Mañariko aurtengo udalekuetarako egoitza, eta parte hartuko duten umeak 3 eta 10 urte bitartekoak izango dira.

Plater erraz eta gozoak egiten jakiteko ikastaroa

IZURTZA Joseba Derteano Argintxu elkartearen sukaldaritza ikastaroa abiatu dute. Sukaldari aditu baten eskutik hainbat plater zelan prestatu ikasten dabilta zortzi lagun. Ikastaroko platerak errazak, baina, aldi berean, bereziak eta gozoak direla adierazi dute antolatzaileek. Esaterako, orain arteko saio batean azaloreak, bakailaoa eta madalenak prestatu dituzte. Eskolen ostean bertan afaltzen dute denek elkarrekin. Ikastaroa amaitzeko falta diren saio biak datorren astelehenean eta eguaztenean izango dira.

> DURANGALDEA ASTEON

Erein Egune, ekainaren 27an

DURANGO > Aisialdiko eskaintzan gazteek ikusten dituzten gabeziei aurre egiteko eta gazteen arteko harremanak estutzeko, Erein Egune antolatu dute ekainaren 27rako. Eguerdian hasiko dute egitaraua, Santa Anan, *Sekretuak ereitten* ekimenagaz. Tailerrak eta bazkaria izango dituzte. Tikitak 4 euroan daude salgai.

Domekan, mendi lasterketa Urkiolan

ABADIÑO > Domekan, Zelaietan hasi eta Urkiolan gora, Serafin Amezua *Txarakaren* Oroimenezko Mendi Lasterketa jokatu dute. Kirolerrotan atletismo klubak antolatu du proba, eta 10:30ean hasiko da, Zelaietako elizaren parean. 7,6 kilometroko igoera egingo dute. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 10 euroren truke.

Sariak jaso barik DAZeko zozketan

DURANGO > Alde Zaharreko premiei buruzko inkesta egiteaz bat, DAZ elkarteak zozketa txartelak banatu zituen. Sari batzuk jaso barik daudela azaldu dute DAZeko kideek. Hauek dira zenbakiak: 00004, 00052, 00294, 00347, 00443 eta 00658. Zozketako sariak dendetan gastatzeko 50 euroko bonuak dira.

Iritzia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodunentzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,
48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefona
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

MILA BAIETZ

- 1.000 HARPIDEDUN ZORNOTZAN -



Harpidedun egiteko honako 4 aukera hauek dituzu:



Berbaz

Aitor Odiaga (Abadiño) | Itziar Berrio (Zornotza) eta Gorka Madrazo (Durango) | Gure Esku Dago

“Iazkoak etorri daitezela beste bati eskutik oratuta; itzela litzateke!”

Erabakitze eskubidearen alde batzera deitu du Gure Esku Dagok etziko, ekainaren 21erako; Bizkaiko herri batzordeek Bilbon egin dute hitzordua: tartean, Durangoko, Zornotzako eta Abadiño taldeek



> BERBAZ Aitziber Basauri Erabakitze eskubidea aldarrikatzeko egun osoko jaia antolatu du Gure Esku Dagok Euskal Herriko bost hiriburutan. Bilbon, San Mamesen izango da ekitaldi nagusia, 17:30ean. Goizean, Euskalduna zubia eta Areatza lotuko dituen oihal katea egingo dute. Gure Esku Dagoren Bilboko dendan (Buenos Aires, 3), sarrera erosi daiteke oraindik.

Iaz, 150.000 lagun pasa batu ziren, erabakitze eskubidea aldarrikatzeko, Durango eta Iruñea lotu zituen giza katean. Hori gaintu gura duzue domekan? Ez da erronka txikia. **Itziar Berrio:** Hori da helburua. Urterik urtera gero eta herritar gehiago batzea. Giza katea egin ostean, erraz ikusten genuen, oihartzun handia izan zuen eta. “Datorren urtean gehiago!”, pentsatu genuen. Aurten, probintzia bakoitzean ekitaldi bat egingo dugu, inork ez dezan hurbiltzeko aitzakiarik izan.

San Mames berria beteko da? **I.B.:** Horretarako gabilta lanean. Egia da azken orduan ibil-

“*Euskalduna zubia eta Areatza lotuko dituen oihal kateak desberdinen arteko lana erakutsiko du*”

tzen dela jendea; iaz ere horrela gertatu zen. Zornotzan oraingoz 600 sarreratik gora saldu ditugu. Gure esku utzi dute sarrera kopurua, baina ikusi dugu batzuek larregi eskatu dituztela, beste batzuek gutxiegi... Sentsibiltatearen araberakoa izango da erantzuna.

Aitor Odiaga: Abadiñon 300 eskatu, denak saldu eta berriak eskatu ditugu. Hala ere, hauteskondeek guztia atzeratu digute. Azkenean, hamabi egun baino ez ditugu eduki sarrerak saltzeko. Athleticek Errege Kopako finala jokatu arte itxaron beharra egon da sarrerak inprimatzeko.

Gorka Madrazo: Durango eta Iurretaren artean 800 sarreratik gora saldu eta gehiago eskatu ditugu.

Zer eskatzen diozue herritarrei? **I.B.:** Inork ez dezala ahaztu iazko ekainaren 8an zeinen gauza handia egin genuen. Bezperan ez genuen uste beteko genuenik, eta azkenean... Abadiñon izan ginen gu, eta gogoan dut zer zioten: “Telebistan agertu da! Bete-beteta dago!” Oso-oso hunkigarria izan zen. Jendeak ez dezala hori ahaztu. Bilbora joatea errazagoa da, eta egun osoko jaia da. Politza izango da San Mames betetzea, baina hartu daiteke parte goizean ere, oihal katera joanda.

Egitarau zabala antolatu duzue domekarako, Bilbon.

A.O.: Oihal katea egingo dugu, 12:00etan. Bilboko zazpi zubi batuko ditugu, Euskalduna zubia eta Areatza artean. Zazpi zubiek zazpi herrialdeak sinbolizatuko lituzkete. Errekaren alde bietatik joango da; eskualde bakoitzari bere zatia dagokio.

Horretarako ere beharrezkoa da jendearen parte-hartzea?

I.B.: Bai, eta ez da sarrerarik behar, hurreratu, eta ekitaldian parte hartzea baino ez: adibidez, su artifiziaiak jaurtiko dituzte,

“*Herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu, eta gure unea da*”

eta adarra eta txalaparta joko dituzte. Jai giroa egongo da.

Herritarren borondatea batu gura duzue oihal kate horregaz.

A.O.: Desberdinen arteko lana da erakutsi gura duguna. Hogei zatitan banatutako oihalak josi dira herrietan egindako Joste Egunetan; norbanakoez herri honentzat gura dutena idatzi dute zati bakoitzean. Sentsibiltate desberdinak josi dira. Bilbon, horiekin egingo dugu oihal katea, gero San Mamesera eramateko; han, hautetsontzi erraldoi bat estali gura dugu, desberdinen arteko borondatea islatzeko. **I.B.:** Gure gizartean ideologia, izaera eta helburu desberdinak dituen jendea dago, eta, denak batu gura ditugu. Ez da abertza-

leen batura, independentistena ere ez, denon batura da. Erabakitze eskubidea eskatzen dugu, bakoitzak erabaki dezan herri honentzat onena zer den.

Zelan joan dira Durangaldean Joste Egunak?

G.M.: Oso ondo joan dira. Durangon egia da lasai hasi ginela, baina, azkenean, oso ondo joan zen. Plaza bete zen, desberdinak elkartu ginen, eta ekitaldi benetan polita izan zen.

Domekan, zelan espero duzue erantzungo duela herriak?

G.M.: Iazkoa handia izan zen, eta horrek ere indarra ematen dio. “Iazkoa itzela izan zen, eta aurten ezin dut hutsik egin!”, sentsazio hori sumatzen dut.

I.B.: Euskal gizarteak askotan azken-azkenean erantzuten du. Iaz, giroa beroago zegoen, ez zen hauteskunderik izan –ez ditugu gauzak nahastu gura izan–. Era berean, egia da udan asko galdu zela: ekainean, oso bero zegoen jendea, baina udan geldialdia egon zen, eta hori berriro martxan jartzea kostatu egin da.

A.O.: Iaz, bost-sei hilabete arinago hasi ginen metroak saltzen, eta apurka-apurka berotu zen giroa. Epeekin estu ibili gara oraingoan.

Kirol, kultur eta politika arloko 100 lagun inguruk parte hartzera deitu dute. Atxikimendu gehiago izan dira oraingoan.

I.B.: Horrek ere mugituko du jendea, baina beldur gara berandu ez ote gabiltzan. Iazkoak etorri daitezela beste bat eskutik oratuta; itzela izango litzeke!

Zein da Gure Esku Dago mugimenduaren helburua?

I.B.: Politikoen zein beste inoren zain egon gabe, guk mugitu eta erabaki behar dugula erakutsi nahi dugu. Aldaketa handiak herriaren eskutik datoz. Eskozian eta Katalunian herriak mugitu behar izan du erabakitze eskubidea aldarrikatzeko. Herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu, eta gure unea da. **A.O.:** Guk erabaki behar dugula erakustea, gure esku dagoela. Herritik sortutako mugimendua da, inoren laguntzarik gabea. Lan handia eskatzen du, baina askeago ere bagara.

Gizartea prest dago?

I.B.: Bai, baina zaila da politika kontuan hartu gabe horrelako makineria martxan jartzea eta hainbeste jende mugitzea.

G.M.: Baina jendea prest agertzen da laguntzeko.

JAIIAK!

Atxondo

2015ko EKAINA

ATXONDO

*2015eko San Pedro jai
zoriontsuak opa deutsueguz!*



www.atxondo.net



AXPEKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 19, BARIKUA

18:30ean, esku pilota partiduak.
Atxondoko Gazteen Esku Pilota Txapelketa 2015.

21:00etan, Axpeko I. Binakako
Pala Txapelketako finalak.

22:30ean, Txopo jasotzea.
Ondoren, berakatz-zopa eta
txokolatea denontzat.
Gero, erromeria Etzilimo taldearen eskutik.

EKAINAK 20, ZAPATUA

11:30ean, gazteen mendi irteera.

17:00etan, mus txapelketaren hasiera.
Arratsaldean, bakailaoa pil-pilean txapelketa eta
tortilla txapelketa.

OHARRA: Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak eraman
beharko ditu. Bakailao txapelketako dirusariak berdina izango
dira partaide guztientzat. Irabazleak dirusari berdina, txapela eta
garaikurra izango ditu. Sariak gazteentzat eta nagusientzat
egongo dira. Aurkezpena 21:00etan izango da.

HERRI AFARIA: Parte hartu dutenek euren lagun taldeagaz
afaldu ahal izango dute pilotalekuan. Jai Batzordeak ogia,
postrea eta kafea jarriko ditu.

22:30ean, kantu afaria.
Ondoren, erromeria Luhartz taldeagaz.

EKAINAK 21, DOMEKA

Umeen Eguna
Atx-azpi elkarteak antolatuta

11:30ean, meza nagusia. Atxondoko
Andasto dantza taldea.

13:00etan, mus txapelketaren amaiera.

13:00etan, esku pilota partiduak.

18:00etan, Argentinatik,
Compañía de circo trotamundos.

19:30ean, umeen jolasak.
Ondoren, txokolatada eder bat.

EKAINAK 23, MARTITZENA

Ilunkeran, San Joan suak.
Amaitutakoan, txokolatada eder bat.

EKAINAK 24, EGUAZTENA

San Joan eguna

11:30ean, meza nagusia.
Ondoren, igel txapelketa.
Gero, herriko jubilatuentzat luntxa.

16:30ean, briska txapelketa;
hasiera eta amaiera.



AROSZTEGIA - TEILATUGINTZA
ANAIAK, s.a.l.

Musika, kale ikuskizunak eta dantza saioak San Joan jaiekin gozatzeko

Urtero legez, San Joan bezperan, sua piztu, eta txokolatea banatuko dute bertaratzen direnen artean



Briska eta igel txapelketak, dantza saioak eta Txopoa igera dira jaietako ekimenetako batzuk.

> JAIK Joseba Derteano

San Joan suen txingarrek gaur hasi eta egueztenera arteko argia egingo dute Atxondoko Axpe auzoko jaietan. Musika, kale ikuskizunak, mus txapelketa, dantza saioa... Askotariko ekitaldiek osatzen dute egitaraua.

Gaur, 22:30ean, jaietako hasiera ofiziala emango dien Txopoa jasoko dute, eta, ondoren, berakatz zopa eta txokolate beroa banatuko dituzte. Tripa berotu ostean, gorputzari beste beroaldi bat emateko aukera eskainiko du Etxilimo erromeria taldeak.

Nagiak kentzeko, zapatu-rako, 11:30ean, gazteen mendi irteera antolatu dute. Arratsaldean mus eta sukalki txapelketak egingo dituzte, eta, kantu afariaren ostean, Luhartz taldeak erromeria eskainiko du.

Domekan, 11:30ean, Andasto dantza taldearen dantza saioa ikusi ahal da. Horretaz gainera, umei begirako hainbat ekitaldi prestatu dituzte. 18:00etan, Argentinako Trotamundos zirkuko konpainiaren abenturak hartuko dute Axpeko plaza, eta, ondoren, umeen jolasak izango dira. Martitzen gaua, San Joan bezpera, su handi eta txikiak argituko dute. Urtero legez, ba-

Domekan, Andasto dantza taldearen saioa eta umeentzako hainbat ekitaldi izango dira

serririk baserri piztuko diren su txikiak batera plaza ondoko belardi batean su handi bat piztuko dute.

Eguaztenean, San Joan egunean amaituko dira jaiak. Goizean igel txapelketa eta arratsaldean briska txapelketa jokatuko dituzte.

Bakailaoa eta tortilla afaldu, eta bertso eta kantu saioa postrerako

Bertsoekin eta euskal kantu tradizionalen girotuko dute biharko afalostea



Txapelketen ostean, herri afarian batuko dira, pilotalekuan.

> TXAPELKETAK J.D.

Zapatuan, bakailao eta tortilla txapelketak egingo dituzte 17:00etatik aurrera. San Joan jaietako barruko ekitaldirik jendetsuenetakoak izaten dira txapelketa horiek, batez ere, sari ba-

naketaren ostean, herri afarian batzen direlako, pilotalekuan.

Aurten, bakailaoagaz eta tortillagaz osatutako menuaren osteko postrea berezia izango da; bertsoak entzuterako eta euskal abesti tradizionalak kantatzera

gonbidatzen duen postrea proposatuko dute. Miren Amuriza eta Eneko Abasolo *Abarkas* bertsolariek librean egingo dute bertsoetan, eta Beñat Aiartzak askotariko euskal kantuak elkarrekin kantatzera gonbidatuko ditu afaltiarak. Aiartza Durangoko Plateruenean garatzen den euskal kantu tradizionalen gaineko Kantulagun egitasmoaren sustatzaileetako bat da.

Txapelketa gastronomikoei dagokienez, tortilla txapelketan nagusientzako eta gazteentzako sari bana banatuko dituzte. Bakailao txapelketan, aldiz, irabazleak garaikurra eta txapela jasoko ditu; dirusaria parte hartzaile guztien artean banatuko dute, osagaien erosketan egindako ahalegina orekatzeko.

Gaztetxoak esku pilotan eta nagusiak palan

Lehenengoz antolatu dute pala txapelketa jaietan

> KIROLA J.D.

Esku zein palan, pilota eskaintza zabala egongo da jaietan. Pilotan gazte mailako txapelketaren finalaurrekoak jokatuko dituzte, eta palan lehenengoz antolatu den txapelketako finalak ikusteko aukera egongo da.

Gazte mailako partidua egun bitan banatu dituzte. Gaur, 18:30etik aurrera, sei norgehiagoka jokatuko dituzte, eta horietako askotan pilotari atxondarrek izango dira protagonistak. Benjamin mailan, esaterako, Atxondoko pilotarien arteko lehia jokatu dute; haur kategorian B mailako lehen finalerdia Elorrioko pilotarien artekoa izango da, eta bigarren finalerdian Atxondo eta Portugaleteko pilotariak neurtuko di-

ra; A mailan, aldiz, Atxondo eta Ortuella lehiatuko dira. Gaurko azken partidua biak kadete mailakoak dira: Atxondo-Gasteiz eta Portugalete-Lea Ibarra dira parekatzeak.

Domekan, 13:00etatik aurrera, beste hiru partidua jokatu dute. Kimu mailan, Atxondo-Markina eta Zaldibar-Atxondo dira finalerdia, eta, haur kategorian A mailan, Zaratamo-Bermeo. Final guztiak Apatako jaietan jokatu dute.

Bestetik, pala txapelketa da aurtengo nobedadeetako bat. Arrazolako buruz buruko txapelketak duen arrakastari jarraituz, Axpen binakakoa antolatu dute lehenengoz. Hainbat jardunaldiren ostean, finala gaur izango da, 21:00etan.

ARKITEKTURA

U3

TEKNIKOAK

U3 Arkitektura Teknikoa
 J.A. Agirre Lekube, 10
 48291 Atxondo
 Tel.: 946 201 523 / 627 575 583
 Faxe: 946 819 061
E-mail: info@u-3.es

Eraikuntza-obra
Proiektuen kudeaketa osoa
Obra berria, birgaikuntza,
zaharberritze lanak eta legalizazioak

BURDINAK, S.L.

EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxe: 946 583 416

APATAKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 20, ZAPATUA

09:00etan, mendi martxa, Asuntze mendi taldeak antolatuta. Plazatik irtengo dira. Hiru ibilbide daude: umeentzako, ibilbide luzea eta ibilbide laburra.

EKAINAK 25, EGUENA

19:00etan, pintxo-potea eta txosnen irekiera; ondoren, pilota desafioa.

EKAINAK 26, BARIKUA

17:00etan, Txopo txikiaren apainketa, gaztetxean.

19:00etan, Txopo txikiaren eta Txopo handiaren igoera, gaztetxetik irtenda eta trikiilariekin girotua. Jaietako pregoia, Atxondoko Lamiak emakume taldearen eskutik.

Herri afaria: Parte hartu dutenek euren lagun taldeagaz pilotalekuan afaldu ahal izango dute. Jai Batzordeak ogia, postrea eta kafea jarriko ditu.

20:30ean, tortilla eta bakailao txapelketa.

21:00etan, afaria, pilotalekuan.

Ondoren, erromeria Oxabi taldeagaz.

EKAINAK 27, ZAPATUA Mozorro eta Kuadrillen Eguna

11:00etatik **13:30**era, inguru abentura.

15:00etan, paella-jana eta, ondoren, kuadrillen arteko jolasak.

18:30ean, batu-poteoa Aulestiko batukada taldeagaz.

23:00etan, kontzertuak, plazan:

- Iheskide (Elorrio)
- Skakeitan (Donostia)

EKAINAK 28, DOMEKA

11:00etan, Atxondoko gazteen pilota partiduak.

16:00etan, umeen igel txapelketa, Itziar tabernan.

17:00etan, Nagusien 29. Igel Txapelketa, Itziar tabernan.

17:00etan, umeentzako ipuin kontalari musikatua, plazan.

19:00etan, emakumeen herri kirol erakustaldia, plazan.

20:00etan, Andasto dantza taldearen erakustaldia.

EKAINAK 29, ASTELEHENA San Pedro eguna

11:00etan, umeentzako zurezko jolasak.

19:00etan, emakumeen pala txapelketa (herriko jokalariekin) eta, ondoren, pilota partidu profesionala: Goñi-Otxandorena Olaizola I-Jaio

EKAINAK 30, MARTITZENA

14:00etan, jubilatuen bazkaria.

19:00etan, saiheski-jana eta Txopo botatzea.

20:30ean, akrobazia eta tela ikuskizuna –musika zuzenean–, pilotalekuan.

San Juan auzoa, 20 · Atxondo, Bizkaia
Tel.: 946 582 060 · www.akebasorestaurante.com

RESTAURANTE
akebaso
JAIETXEA

Jaietan ere asteburuetako menuak eskaintzen ditugu! Zatoz gurrera, eta ondo pasa sanpedroetan!

Sei egun eta egitarau zabala San Pedro jaiekin gozatzeko

Txopo jasoeraren bezperan ere, ekainaren 25ean, jai giroa nagusituko da Apatan, pintxo poteagaz, plazako txosnagaz eta pilota desafio bereziagaz

> JAIK Joseba Derteano

Ekitaldiz beteriko sei egunekin ospatuko dituzte aurtengo San Pedro jaiak. Izan ere, ekainaren 25ean, txopo jasoeraren bezperan, motorrak berotzeko aukera egongo da. Aurten eguenetako ohiko pintxo potea Jai Batzordeak plazan atonduko duen txosnagaz indartuko dute 19:00etatik aurrera.

Gainera, egun horretan herriarren arteko pilota desafio egongo da pilotalekuan. Desafio berezia da. Binaka eta bost koardoren barruan, 20 minututan geratu barik nork tanto gehiago egin lehiatuko dira. Tanto gehien egiten dituen bikotea izango da irabazlea. Partiduei oraindino gatz eta piper gehiago emateko, jokatzan ari diren bitartean bikote bakoitzak zerbe-

za litro bat edan beharko du ahal duen moduan eta azken bost minutuetan aurrelariak palagaz jokatuko dute. Desafio honetarako izen-ematea Ilargin egin daiteke ekainaren 22ra arte.

Barikuan, ekainak 26, txopoa jasoko dute nagusiek zein gazte-koek. Azken urteetan ohitura den moduan, gazte-koek txopo txikia euren gustura apainduko dute gaztetxean, eta, ondoren, plazan jasoko dute.

Zapatua Mozorroren eta Kuadrillen Eguna izango da. Nor bere gustura mozorrotuta irteteko gonbita luzatu dute. Paella janaren ostean, kuadrillen arteko jolasetan neurtuko dira.

Musikariek ere ez da faltako. Iheskide, Skakeitan eta Oxabi taldeen musika izango da jaietan zehar.

Bestalde, ekainaren 30ean, martitzena, ikustekoa izango da jaietako amaiera emango dien akrobazia eta tela ikuskizuna ere. Tela batetik zintzilik egindako akrobaziak izango dira zuzeneko musikagaz lagunduta.

Pilota partiduak

Urtero legez, pilota eskaintza zabala dag jaietan. Ekainaren 28an, 11:00etan, gazte mailako txapelketaren finalak jokatuko dituzte frontoian. Finalistak nortzuk izango diren gaur eta domekan erabakiko dituzte, Axpeko pilotalekuan. Ekainaren 29an, aldiz, pilotarien arteko norgehiagoka izango da: Mikel Goñik eta Iñaki Otxandorenak Asier Olaizolaren eta Oier Jaioaren aurka jokatuko dute Apatako pilotalekuan.



Herritar askoren laguntzagaz jasotzen dute Txopoa.



Ekainaren 27a Mozorro eta Kuadrillen Eguna izango da.

Emakumezkoak protagonista kirol eskaintzaren barruan

Pala partiduak eta herri kirol erakustaldiak eskainiko dituzte



Ane Díez eta Amaia Marizkurrena atxondoko pilotari gazteak Bizkaiko txapelkunak dira.

> KIROLA J.D.

Jaietako kirol eskaintzaren barruan, emakumeek protagonismo berezia izango dute aurten pala partidu eta herri kirol erakustaldiekin.

Ekainaren 29an, astelehen, Ane Díez eta Amaia Marizkurrena atxondar gazteek pala partidua jokatuko dute Larrabetzuko bikote baten aurka. Partidua 19:00etan hasiko da. Atxondoko pilota eskolako pilotariak dira, eta, esku pilotatik palarako aldaketa egin ostean, emaitza bikainak lortzen dabilta. Otsailean, kadete mailako Bizkaiko Pala Txapelketa irabazi zuten elkarrekin, Larrabetzun (Bizkaia). Oraintsu, kadete, gazte eta nagusi mailako pilotariak batera jokatuko dute Bizkaiko beste txapelketa batean ere txapelkun geratu dira, Bigarren Mailan. Hori gutxi balitz, asteburu honetan Bizkaiko trinkete txapelketako finala ere jokatuko dute. Beraz, elkar ondo hartzen duten biko-

tea osatzen dutela erakutsi dute. Gainera, Ane Díezek GRAVN txapelketan kadete mailako txapela jantzi du aurten Basauriko bikote batez.

Herri kirol erakustaldiak

Emakumeak protagonista dituen bigarren proba herri kirol

Marizkurrenak eta Díezek Bizkaiko hainbat txapelketa irabazi dituzte palan bikotea osatuz

len gainera izango da. Ekainaren 28an, 19:00etan, erakustaldia eskainiko dute Susana, Garráiz Arruti, Janire Campo eta Ariane Landak, udaletxe pareko plazan. Susana eta Garazi tronztan eta ingudeagaz ariko dira; Garráiz eta Janire, aldiz, txinga eramaten eta arto-buru bilketan ibiliko dira.



Fuchosa

CONTINENTAL
TEVES

CONTINENTAL TEVES
Urteko hornitzaile onenari saria
(2004-2006-2011)

2002: Enpresaren ingurumenerako kudeaketa jasangarriaren europar saria



EMAS sisteman, ingurumen-kudeaketa eta ikuskaritzarako europar sisteman, inskribatuta

ISO / TS-16949
ISO 14001
OHSAS 18001






ESTAMPACIONES LARRETXE S.L.

- PIEZAK TROKEL PROGRESIBOEN BITARTEZ FABRIKATZEA
- HAGAXKEN HOTZEKO ESTANPAZIOA
- ESTANPAZIOA ORO HAR

Jauregi kalea, z/b · ARTIA ind. 5. pab. · 48292 ATXONDO
Tel.: 946 231 645 · Faxa: 946 231 436 · www.larretxe.com

Alazne Campañón, Cristina Muga eta Matxalen García | Atxondoko Lamiak elkarteko kideak

“Elkar errespetatu behar dugula esango dugu, jaiak denonak direla”

Atxondoko Lamiak emakume elkarteak irakurriko du, ekainaren 26an, Atxondoko jaien hasierako pregoia; 26 kidek osatzen dute, gaur egun, emakume talde hori, eta euretako hirugaz izan dugu berbaldia



Alazne Campañonek (ezkerrean) irakurriko du, ekainaren 26an, 19:00etan, jaien hasierako pregoia.

> PREGOIA Itsaso Esteban
Zelan hartu duzue jaien pregoia irakurtzeko proposamena?

Cristina Muga: Egia esanda, ez da jaietako pregoia irakurtzeko proposamena egin diguten lehengo aldia, baina orain arte, hainbat arrazoirengatik, ezezkoa eman behar izan dugu.

Alazne Campañón: Pregoia urte bakoitzean herriko talde edo elkarte batek ematea da Jai Bartzordearen ideia. Aurreko urteetan proposatu izan digutenean, azkenean ezezkoa eman behar izan dugu hainbat arrazoigatik. Aurten erabaki dugu egin behar dugula, bestela datorren urtean edo hurrengoan berriro etorriko litzaizkigukeelako proposamenagaz. [Barrez]

“*Ez da jaietako pregoia irakurtzea proposatu diguten lehenengo aldia*”

Taldea edo taldearen helburuak ezagutarazteko aukera ona da zuen ustez pregoia?

Matxalen García: Egia esan, pregoia emateari ez diogu balio berezirik ematen.

C.M.: Izan ere, herri honetan denok ezagutzen dugu elkar, eta jendeak badaki Atxondoko Lamiak emakumeen elkarteak

zertan egiten duen lan. Ez dugu uste pregoiak gauzak asko aldatuko dituenik.

A.C.: Beste barik, herrian jaien hasiera egiteko dagoen dinamika horregaz jarraituko dugu.

Pentsatu duzue zer esango duzuen pregoian?

A.C.: Ez dugu oraindik zehaztu, baina gurea emakume talde bat izanik, lantzen dugun gaiaren inguruan hartuko dugu berba. Zorionez, herri honetan jaietan ez dugu sekula eraso sexistarik sufritu, baina horri lotutako mezua zabalduko dugu pregoiagaz: jaiak denonak direla eta jaietan ere elkar errespetatu behar dugula da barikuan plazaratuko dugun mezua.

“*Elkartearen inguruan sortu den emakume sarea da gauza positiboena*”

Zenbat kide zarete elkartean?

C.M.: Momentu honetan, 26 kide gara. Gehien izan garen unean 42 izan gara, eta nabari dugu beherakada.

Urtean zer arlotan egiten duzue lan gehien?

M.G.: Emakumeei zuzenduriko ekimenak antolatzen ditugu:

ikastaroak eta txangoak, esate baterako. Emakumearen ongizateari begirakoak izaten dira ekitaldi guztiak.

C.M.: Jabekuntza ikastaro bat egin dugu, esaterako, aurten. Parte hartu gura izan duten guztiei zuzendurikoa. Baina, zorritzarrez, gehienetan talde bera joaten gara antolatzen duguna edozer dela ere.

A.C.: Azken urteetan, hain zuzen ere, horrek eraman gaitu lehen egiten genituen ekintza batzuk bertan behera uztera. Hilaro film bat ematen hasi ginen, adibidez, baina, oso jende gutxi etortzen zenez, utzi egin diogu ekimen hori antolatzeari.

Parte-hartzea ez da, beraz, gura zenuketen modukoa.

C.M.: Ez, jende gehienak ez du parte hartzen. Horren adibide da elkartearen zuzendaritza berritzeko dauzkagun zailtasunak. Inor ez dago prest ardurak hartzeko. Iaz, zuzendaritza utzi gura genuen batzuek, eta, inor ez zegoenez sartzeko prest, elkarte desegitea ere pasa zitzaigun burutik. Baina azkenean geuk jarraitu dugu elkartearen zuzendaritzan.

A.C.: Ez bakarrik elkartearen zuzendaritzari begira; jendeak gehiago parte hartzea gura dugu, esate baterako, ideiak emanez edo gauzak proposatuz.

Urteotan elkartean parte hartu izanak ekarri dizuen gauzarik positiboena eta aberasgarriena zein da?

M.G.: Gurea herri txikia denez, lehen ere elkar ezagutzen genuen arren, Atxondoko Lamiak elkartearen inguruan sortu den emakume sarea da gauzarik positiboena.

C.M.: Oso harreman polita daukagu, eta ikastaroak ematera etortzen direnek ere esaten digute oso talde dinamikoa garelako. Taldeko terapien modukoak izaten dira ikastaroak.

A.C.: Konfiantza maila oso altua daukagu. Badakigu hemen partekatzen duguna hemen geratzen dela.

ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAK



cemosa
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.



www.soul-cemosa.es

CEMOSA Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 946 231 717 - Faxe: 946 231 799

JAIIAK!

Berriz

2015ko EKAINA



Emakumeen aurkako
indarkeriarik eta
eraso sexistarik ez!

JAIKETAN BE EUSKARAZI!



BERRIZKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 26, BARIKUA

17:00 Pregoi Txikia udaletxean. Gero, olinpiadak eta umeentzako askaria.

19:00 Pregoa eta txupinazoa udaletxean, Pablo Berasaluze (Berasaluze II.a) pilotariagaz. Ondoren, jaietako kartel lehiaketaren sari banaketa, udaletxean. Ostean, urtero bezala, sardina-jana.

19:30 Txosnen irekiera: Txosna 1, joko 1. Txosnek antolatuta.

20:00 Donien Atxa eta dantzari-dantzaren entsegua, Elizondo plazan.

21:00 DJ Robertegaz dantzaldia, Elizondo plazan.

22:00 Nesken VI. eta Mutilen VII. frontenis txapelketetako finalak, Berrizburu kiroldegian.

23:00 Kontzertua: Pixontxis, Mocker's eta E.T.S. (En Tol Sarmiento).

EKAINAK 27, ZAPATUA

Kuadrillen Eguna

11:00-14:00 / 16:30-19:00 Trena Elizondotik Olakuetaraino. Berrizko Merkatarik Elkarfeak (BME) antolatuta.

14:00 Paella lehiaketa, udaletxeko lorategian.

15:00 Mozorro bazkaria. Iluntzean, sari banaketa egongo da, txosnagunean.

16:30 Arno eta animaliak umeentzako, Elizondo plazan.

17:30 Karta joko lehiaketa: mus, tute eta briska. Izen-ematea: 17:00-17:30.

18:00 Kuadrillen jaietsiera, txosnek antolatuta.

19:30 Herriko igel txapelketa.

20:30 Bola-joko txapelketa.

21:00 Erromeria Boston jaia musika taldeagaz, Elizondo plazan.

23:00 Kontzertua: Revolta Permanent, Seiurte eta Gora Herriak.

Suzko zezena.

EKAINAK 28, DOMEKA

12:00 Bizikleta martxa herrikoia, udaletxe aurrean hasita.

12:30/14:00 Umeentzako Kairen txokoa (5 urtetik gorakoentzat).

13:15 Bertso saioa Onintza Enbeita eta Igor Elortza bertsolariekin, Elizondo plazan.

17:00/19:30 Umeentzako Kairen txokoa (5 urtetik gorakoentzat).

17:30 3x3 Saskibalo Txapelketa 9-17 urte bitarteko neska-mutilentzat, institutuko patioan. Ostean, Jaurtiketa Libreen Saskibalo Txapelketa familientzat.

18:30 Kontzertua: Antonio Lizana flamenko jazz, udaletxeko lorategian.

20:00 Pintxo lehiaketa, txosnetan. Aurkezpena 21:00etan izango da.

22:30 Dantzas konpainiaren 'Txoriak', eskolako patioan. Euria egiten badu, kiroldegian. Ondoren, erromeria Drindots musika taldeagaz, Elizondo plazan.

EKAINAK 29, ASTELEHENA

San Pedro eguna

11:00 Margo lehiaketa umeentzat, udaletxeko lorategian. Euria egiten badu, eskolako patio berrian.

12:30 Meza nagusia. Ondoren, dantzari-dantza.

16:00 Ur jolasak (eguraldi ona egiten badu), txosnagunean.

17:00 Infoncundibles taldearen 'Que raro, ¿verdad?' kale antzerkia, Elizondo plazan.

18:00 Piano bat bertsotan euskal kanten kontzertu parte-hartzailea, udaletxeko lorategian.

20:00 Dantzari-dantza. Ondoren, erromeria Egan musika taldeagaz, Elizondo plazan.

21:00 Kontzertua: Rory Kilroy, Froufe eta Izaro, txosnagunean.

EKAINAK 30, MARTITZENA

12:00 Tribiala (12 urtetik gorakoentzat), udaletxeko lorategian.

12:30-14:00 Umeentzako jolas parkea, kiroldegian.

17:00-20:00 Umeentzako jolas parkea, kiroldegian.

19:00 Ardo dastaketa herriko tabernarien laguntzagaz, txosnagunean.

19:30 Herriko igel txapelketa (12-18 urte), lorategian.

20:30 Gazteentzako bola-joko txapelketa (12-18 urte).

21:00 Kontzertua: Ombligo de Venus, txosnagunean.

21:30 Musika eta jaia Xaiborregaz.

23:00 Bits jaia.

UZTAILAK 1, EGUAZTENA

12:30-14:00 / 17:00-20:00 8 urtetik gorakoentzat: jumpinga, surfa, choppersa... Berrizburu kiroldegian.

19:00 Barbakoa, txosnagunean.

21:00 Kontzertua Brearen eskutiik: Etsipen, Kohatu eta Tres41. Txosnagunean. Ondoren, karaokea.

22:00 'Hankaz gora', Tiritirantes zirku antzerkia, Elizondo plazan.

UZTAILAK 2, EGUENA

Santa Isabel eguna

12:00 Meza nagusia eta dantzari-dantza.

14:00 Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean musika, kiroldegian.

18:00 Kontzertua: Habanatik D'Capricho, txosnagunean.

20:00 Dantzari-dantza.

21:00 Tortilla lehiaketa, udaletxeko lorategian.

21:30 Luhartz musika taldeagaz dantzaldia, Elizondo plazan.

23:00 Su artifizialak.

23:00 Jaietan ateratako argazkien erakustaldia txosnagunean.

23:15 Luhartz musika taldeagaz dantzaldia, Elizondo plazan.

· Eguraldia edo baldintza teknikoak direla eta, ekitaldien kokapena aldatu daiteke edo ekitaldia bertan behera geratu daiteke.

· Kale antzerkietan eta bestelako ekitaldietan gurasoek umeen arduraren behar dute.

· Jai Batzordeak ez du bere gain hartzen jaietara haur eta gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik.

HIERRROS
HR IEZU S.A.
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosiezu@telefonica.net

100 years FORJAS DE BERRIZ, S.L.

Pieza berezien forjaketa beroan

Iturriza, 22 • 48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 826 520 • Fax: 946 826 521
www.forjasdeberriz.com

Juliantxu
Jatetxea

Tel.: 946 824 077
48240 Berriz (Bizkaia)

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

VCG DECOLETAJE
Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A.

946 824 012 946 827 978
info@vcg-decoletaje.com

www.vcg-decoletaje.com

Eitua industrialdea, 20. 48240 BERRIZ, Bizkaia



Paella lehiaketak jendetza batzen du udaletxeko lorategian.

Tradizioak sasoi berrietara egokitu dituzte Berrizko jaietan

Donien Atxa eta dantzari-dantzaren entsegua barikura aurreratu dute

> **JAIK** Jone Guenetxea

Berrizen irrikitan daude San Pedro eta Santa Isabel jaiei hasiera emateko. Aurtengo jaietan, gainera, tradizioak sasoi berrietara egokitzea erabaki du Jai Batzordeak. Izan ere, Donien Atxa San Pedro bezperatik ekainaren 26ko barikura aurreratzea erabaki dute. “Donien Atxaren zentzua jaiei hasiera ematea bada, ez zuen zentzurik jaiak lehenago hasi, eta Donien Atxa ondoren altxatzeak”, dio Miren Iturriagaetxebarria Jai Batzordeko kideak. Ekitaldia barikura aurreratzea batzordearen proposamena izan da, eta gainerako eragileak ere ados egon direla azaldu dute.

Era berean, jaiei hasiera ofiziala emateko ohiko ekitaldia txupinazoa izaten da. Aurten, Pablo Berasaluze pilotari berriztarrak jaurtiko du txupinazoa udaletxeko balkoitik. Ondoren, Karlos Berrizbeitia jaietako kartel lehiaketako irabazleari saria emango diote, eta sardina-jana ere ez da faltako, urtero bezala.

Paella arrakastatsua

Berrizko jaietan herritar gehien batzen dituen ekitaldia paella txapelketa izan ohi da. Udaletxeko lorategia sukalde erraldoi bilakatu, eta 600 lagun bai-

**Paella txapelketak
600 lagun baino
gehiago batzen ditu,
urtero, udaletxeko
lorategian**

no gehiago batzen da urtero paellaren bueltan. Paellen egileek txapelketara aurkezten dituzten platerak dekoratzen ahalegin handia egiten dute. Ekainaren 27an, gainera, Kua-dillen Eguna izango dute. Arratsaldean arrakasta handia izan ohi duen beste ekitaldi bat karta joko lehiaketa izaten da. Mus, tute eta briska zaleek 17:00etan dute hitzordua euren trebetasunak zeintzuk diren erakusteko.

Flamenko jazz

Aurtengo egitarauko nobedae-tako bat udaletxeko lorategian ekainaren 28rako antolatutako kontzertua da. Antonio Lizana saxo-jotzaileak flamenko jazz doinuekin girotuko du gaua. Musikariaren *Quimeras del mar* bigarren diskoa labetik ateratzeko gutxi falta da.

Umeentzako jaiak

Jai Batzordeak azaldu duenez, umeen ekitaldiak oso parte-hartzaileak izaten dira Berrizen. “Baten bat nabarmentzekotan, bits jaia aukeratuko nuke. Umeek oso ondo pasatzen dute”, Iturriagaetxebarriaren arabera. Aurten, gainera, bits jaiaren aurretik, ekainaren 30ean, Xaiborrek jarritako musikagaz dantzatzeko aukera izango dute ume zein helduek. Horregaz batera, hainbat egunetan, umeentzako jolasak prestatuko dituzte. Gaztetxoei begira ere, badago zertaz gozatu. Tribiala eta igel txapelketa izango dira 12 urtetik gorakoentzat.



Donien Atxa altxatu eta gero, dantzariak entsegua egiten dute. Peio Agirre



Paella lehiaketara aurkeztutako plateretan dekorazioak garrantzia handia du.

**T.A. TORNILLERIA
AMEZUA S.A.**

**TORLOJU eta PIEZA
BEREZIEN FABRIKAZIOA**

Geltoki, 13 - 36 PK - Tel.: 946 824 059 - Faxa: 946 827 980 - 48240 BERRIZ (Bizkaia)
www.tornilleria-amezua.com - jamezua@tornilleria-amezua.com

Liburudenda

Amaluz

aldizkariak - papera - opariak

Hurriza, 29 Berriz Tel.: 946 826 248

Pablo Berasaluze | Pilotaria | Berriz (1977)

“Urte batzuk baditugu, eta parranda egunak joan zaizkigu dagoeneko”

Pablo Berasaluze pilotariak botako du jaiari hasiera emateko txupinazoa hurrengo barikuan, ekainaren 26an



Berasaluze, lurretako pilotalekuan.

> TXUPINAZOA M. Onaindia Pablo Berasaluze pilotariak botako duen txupinazoagaz hasiko dira aurtengo jaiak. Gustura dago ardura hori eman diotelako, eta herritarrek jaietan ondo pasatzea espero du. Bera, dagoeneko, egunez bakarrik ibiltzen da, lagunekin bazkaldu, eta herritik buelta bat ematen.

Zumaian (Gipuzkoa) egon da asteen, enpresako pilotariekin kontzentratuta, eta handik erantzun dio telefono deiari.

Jaiari hasiera emateko ardura eman dizute. Pozik zaude txupinazoa botatzearen? Bai. Polita da herrian zutaz akordatu izana. Oso gustura na-

go txupinazoa botatzeko ardura eman didatelako.

Zelan bizi izaten dituzu Berrizko jaiak? Zer egitea gustatzen zaizu? Sei-zazpi urte badira jaietan asko irteten ez naizenetik. Azken urteetan egunez ibili izan naiz apur bat, baina gaez ez.

Garrantzitsuena Berrizko lagunekin egotea da, tabernetan zerbait hartu, eta eguna ondo pasatzea. Herritik buelta bat eman, bazkari eder bat egin, bazkalosteko berbaldia... eta gaue-rako etxera.

Egitaraua prest dago. Baina zuk zer ekarriko zenuke Berrizko jaietara? Musika talde asko gustatzen zaizkit, baina nik Mikel Urdangarin ekarriko nuke jaietara. Bere musika asko gustatzen zait, eta beragaz hartu-eman oso ona daukat, gainera. Libre daukadanean bere kontzertuak ikustera joaten naiz, sarritan.

Kirol arloari dagokionez, aurten denboraldi ona egin duzu, eta berriro sartu zara binakako txapelketako finalean. Finala pasatuta dago. Berrizko momentu politikak bizi izan ditut; min hartu, eta berriro final batera ailegatzea garrantzitsua zen, horrek esan nahi zuelako nire jokoa berreskuratu dudala. Final batean egotea beti izaten da polita; egun bereziak dira.

“**Nik Mikel Urdangarin ekarriko nuke jaietara**”

Orain, udako jaietan, herririk herri eta pilotalekurik pilotaleku ibiliko zara, ezta? Hilabete honetan hasiko gara herrietan jokatzeko, eta datorren hilean San Fermin torneoa hasiko da. Hortik aurrera, udako torneoak, jaietako partiduak...

Ea behintzat lesio barik pasatzen dugun uda.

Udako zein txapelketa duzu gogokoen? Nire ustez, denak dira politikak. Iruñea, Lekeitio, Donostia... Azkena bera ere, Logroñokoa, oso polita izaten da. Horiek aipatuko nituzke.

Zuek lan egin behar izaten duzue beste batzuek ondo pasatzeko. Bai. Hori beti horrela izaten da. Baina gure lana gustura egiten dugu. Azkenean horretatik bizi gara, eta oso gustura joaten gara

“**Gainontzekoen moduan irten eta disfrutatu ahal dugula uste dut**”

herrietara. Giro itzela egoten da, eta lanagaz batera disfrutatu ere egiten dugu.

Famatua izanda, lagunekin parrandan ibiltzea ez da erraza izango, ezta? Irteten zarenetan, beti etortzen zaizu norbait agurtzera. Baina, beno, hori ondo hartzen dugu, eta ulertzekoa da. Urte batzuk baditugu, eta parranda egun horiek joan zaizkigu dagoeneko.

Kirolariek kritikak jasotzen dituzue parrandan ibiliz gero. Baina horretarako eskubidea baduzue, ezta? Bai. Gu, azken finean, pertsona normalak gara, eta gainontzekoen moduan irten eta disfrutatu ahal dugula uste dut. Edozela ere, pertsonaia publikoak garenez, normala da jendearen partetik kritikak egotea.

Txupinazoa jaurtitzeko ardura daukazunez, zer esango zenieke berriztarrei? Jaiak ederto pasatu ditzatela eta guztia ondo joan dadila!

BERRIZ ARKITEKTOAK

Josu Oarbeaskoa
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behea, Berriz
T: 946 82 77 49 F: 946 55 07 60
E: o.josu@berrizarkitektoak.com

Club Hípico

Eitua auzoa, z/g
48240 Berriz
Dukiena baserria
652 745 832

Dukiena-BERRIZ

www.dukiena.com

MACOBER

Eraikuntzarako materiala
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66
· BERRIZ ·

Tronperri kalea, 1
· DURANGO ·

Jaien antolakuntzan ere parte hartzeko gogotsu hainbat gazte

Txosnagunean, ohiturazkoak diren ekintzak zein nobedadeak antolatu dituzte



Hiltegixe gaztetxean egin dute, martitzen honetan ere, Txosna Batzordearen batzarra.

Jaietan, musika eskaintza zabala eskainiko dute txosnen bueltan

Hip hopari, punkari, popari zein bakarlariekin lanari egin diete lekua egitarauan

> MUSIKA I.E.

Txosnagunean, Berrizko jaietako egun bakarra izango da zuzeneko musikarik bakoia: domeka. Jaietako gainontzeko egun guztietarako dozena bat musika talde baino gehiagok osatu dute txosnetako zuzeneko musikaren eskaintza. Hiruna taldegaz bete dute ekainaren 26, 27 eta 29rako kontzertuen egitaraua. Berrizko, zein Durangaldeko eta Euskal Herriko beste herri batzuetako musika taldeak ikusi ahal dira Berrizko jaietan.

Pixontxis, Mockers eta En Tol Sarmiento taldeena izango da jaietako lehenengo kontzertua. Ekainaren 26an, 23:00etan.

Berrizko musikarien lanaren erakusle izango dira urte askoko esperientzia duten Seiurte eta Tres 41, musikari gazteen Etsipena eta Kohatu, eta Rory Kilroy eta Froufe bakarlariak.

Froufe eta Rory Kilroy berriztarrek eta Izaro mallabitarrak joko dute, astelehenean, bakarlariekin gauean

Revolta Permanent taldeko Barakaldoko hip hop kantarien

eta Euskal Herriko rock kantuen bertsioak egiten dituen Bilboko Gora Herria taldearen egun berean joko du Seiurte laukote berriztarrek. Jaien bigarren eguneko, Mozorro Eguneke, bazkariaren eta jaitsieraren ostean hasiko da kontzertu hori.

Azken urteetan bezala, bakarlariekin gaua izango da astelehenean. Rory Kilroy eta Froufe berriztarrekin batera Izaro bakarlari mallabitarrak ere joko du, 21:00etatik aurrera. Gainera, uztaillaren 2an eskainiko du kontzertua Danieuris Moya Ávila eta Daniellis Moya Ávila musikari kubatarrek osaturiko D'Capricho taldeak, 18:00etan.

> **GAZTEAK** Itsaso Esteban Txosna Batzordeak Berrizko jaietarako antolatu duen egitarauari azken ukituak eman, eta ekintzak prestatzeko hartu beharreko ardurak banatzen ibili dira, asteon, Txosna Batzordeko gazteak. Azken urteetan baino herritar gehiago batu da, aurtur, lan horietan laguntzera eta jaietarako proposamenak egitera. Azken asteetan 30 lagun inguru batu izan dira Hiltegixe gaztetxeko batzarretan.

30 gazte inguru elkartu dira, aurtur, Txosna Batzordearen egitaraua antolatzeko batzarretan

Gainera, Txosna Batzordean parte hartu duten lehenengo aldia izan da gazte horietako askorentzat aurtengoa. "Gogoia daukagu parte hartzeko; izan ere, ia ikusi genuen txosna bakarra zegoela, eta konturatu gara animatu eta parte hartu behar dugula", adierazi dute. "Jaiak apur bat beheraka zeto-

zela ikusi dugu azken urteetan, eta ahal dugun heinean lagundu egin gura izan dugu".

Aurtengo jaien egitarauan badaude Berrizko txosnagunean ohiturazkoak diren hainbat ekintza, eta beti dira arrakastatsuak. Horietako bi dira Mozorro Eguneke -jaien bigarren eguna- bazkaria eta ondorengo jaitsiera, adibidez. Urteak dira, nerabeengandik hasi eta 40 urte ingurura artekoak moztortu, eta txosnagunean bazkaltzera elkartzen direna.

Uztaillaren 1ean egingo diren barbakoa eta ondorengo kontzertua, eta baita egitarauari hasiera emango dion *Txosna bat, jolas bat* izeneko ekintza ere, ohiko hitzordu dira azken urteetan, eta herritarrek gogotsu hartzen dituzte.

Ardo dastaketa lehenengoz Aurtur lehenengoz, eta tabernarien laguntzagaz, ardo dastaketa bat jaso dute Txosna Batzordearen egitarauan. Ekainaren 30ean, 19:00etatik aurrera izango da dastaketa hori. Jandeanaren bueltan, pintxo lehiaketa ere antolatu dute. Ekainaren 28an, 20:00etan hasiko da lehiaketa hori.



Jaietako bigarren egunean eskainiko du kontzertua Revolta Permanent taldeak.



D'Capicho bikote kubatarrek eskainiko du kontzertua, uztaillaren 2an.

pedro juan
JATETXEA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

MAPFRE

KONFIANTZAZKO ZURE ASEGURU-ETXEA

Geltoki kalea, 9 · Berriz 48240
944 984 190 · fortuna@mapfre.com

A&L
AZPIRI LEJARDI
Correduría de Seguros S.L.

Geltoki kalea · 48240 Berriz
Tel.: 946 824 937 · info@azpirilejardi.com
www.azpirilejardi.com

Uda honetan **PLATERUEN PLATERAK**

• Bariku eta zapatu iluntzeetan •
20:00etatik 23:00etara





Zelaieta parkeko iazko emanaldietako bat.



Andoni Agirrebeitia, Mirian Arriaga eta Luisja Ugarte, prentsurrekoan.

> MUSIKA Itsaso Esteban

Atzoko Andra Mari plazakoa izan zen Haizetara kale banden lehiaketaren lehenengo emanaldia: lehiaketatik kanpo aritu zen Fanfare Petard taldea. Lehiaketaren hamargarren edizioa denez, berezia izango da aurten goa. Bederatzi urtean irabazle izan diren taldeak etorriko dira, Zornotzako kale eta plazetan euren onena erakustera.

Gaurtik domekara arte izango dira lehiaketaren barruko emanaldiak: egun osoan ibiliko dira lehiaketan parte hartuko duten taldeak, Zornotzan zehar, euren musika eskaintzen. La Banda de la Maria (Sevilla, Espainia), No Water Please (Paris, Frantzia), Magicaboola Brass

Kale banda “mundialenen” lehiaketa hartuko du Zornotzak, asteburuan

Bederatzi urtean Haizetara lehiaketa irabazi duten bandak gonbidatu dituzte hamargarren edizioa

Band (Livorno, Italia), The What Cheer? Brigade (Providence, AEBak), Funky Style Brass (Tolosa, Frantzia), Oompah Brass (Londres, Ingalaterra), Le Bus Rouge (Lyon, Frantzia) eta iazko irabazlea izan zen Perhaps Contraption (Londres) taldeak gonbidatu dituzte Haizetara jaialdiaren hamargarren edizioa.

Aurreko urteetan bezala, musika adituek osaturiko epai-

mahaiak emango duen saria (12.000 eurokoa), herritarrena (5.000 eurokoa) eta instrumentistari onenarena (1.500 eurokoa) banatuko dituzte. Bihar, 20:00etatik 01:30era, Sabino Arana kalean ipiniko duten gunean eman ahalko dute gura duten entzule guztiak botoa, herritarren saria nori eman erabakitzeko.

Bestalde, jaialdiko egunetan parte hartu gura duten musi-

kari guztientzat zabalik egongo diren *jam session* saioak eskainiko dituzte. Carlos Velazquez Quartet taldeak zabalduko ditu, 23:30ean, Harrison hoteleko inprobisazio saio horiek, eta gura duten musikari guztiak daude parte hartzera gonbidatuta.

Haizetara lehiaketa “Zornotzan egiten den ekintzarik nazioartekoena” dela azpimarratu zuen, aurkezpenean, Andoni

Agirrebeitia alkateak. “Talde mundialak dira datozenak, kalitate gorenekoak, eta eguraldia lagun izango dugula dirudi, gainera; beraz, osagai guztiak dauzkagu asteburu bikaina igarotzeko”. Jaialdiaren bederatzi urteen balantzea egin zuen Luisja Ugarte kultura programatzaileak: bederatzi edizioetan, 22 nazionalitatetako 78 musika talde eta 600 musikari hartu dituzte.

Antzinako erako euskal ezkontza egingo du Kriskitinek, Durangon

Kriskitin dantza taldeak antolatu du ekimena; Durangon egingo dute, bihar

> DANTZA

Antzina Euskal Herrian ezkontzen inguruan antolatzen zen jaia egingo du Durangoko Kriskitin dantza taldeak, bihar. Bost urterik behin antolatzen du, Durangoko kaleetan, antzinako euskal ezkontza baten antzezpenean. Durangoko Euskal Astearen aurtengo egitarauko azken ekitaldia izango da ezkontza.

Durangoko Kriskitin taldekoek aurreratu dutenez, Jone Alberdi eta Unai Lizarralde dantzariak beteko dute bihar ko antzezpenean ezkontideen papera. Ezkongaien batera, gonbidatuen, familiakoen eta antzinako ezkontza batean parte hartzen zuten beste pertsonaia guztien paperak antzeztuko dituzte Kriskitineko dantzariak.

San Agustin kultur gunean hasiko da jaia, bihar, 12:00etan. Ezkontzan parte hartuko duten

kide guztiak elkartuko dira bertan, eta idiek eramango duten gurdiagaz ibiliko dira goizean, Durangoko kaleetan zehar. San Agustinetik abiatuko dira, musikak lagunduriko kalejiran. Jaizale taldeko txistulariak, Txiri Txiri taldeko musikariak,

Jone Alberdi eta Unai Lizarralde dantzariak beteko dute antzezpenean ezkontideen papera

Bartolome Ertzilla musika eskolako berdegunean elkartuko dira ezkontzan parte hartuko dutenak

eta trikiti eta pandero eskolako ikasleak gonbidatu dituzte kalejira musikagaz girotzera. Kalejiran zehar egiten dituzten geldialdietan dantza emanaldi laburrak eskainiko dituzte Kriskitineko dantzariak.

Ezkurdi plazatik, Montevideotik, Altuna Musikaria kaleetik eta Kurutziagatik kalejiran ibili ondoren, Artekaletik Santa Ana plazaraino abiatuko dira, eta arreoak irakurriko du notarioak, ekitaldira gerturatzen diren guztien aurrean.

Ondoren, Bartolome Ertzilla musika eskolako berdegunean elkartuko dira bazkaltzera ezkontzan parte hartuko duten eta gerturatu nahi duten herritar guztiak. Bazkalostean, berdegune horretan bertan, dantzan amaituko dute eguna; izan ere, Aiko taldearen doinuetara jarraituko dute ospakizunagaz.



Kriskitinek 1995. urtean egin zuen antzinako erako ezkontzaren argazkiak.

> MUSIKA Itsaso Esteban
Ekainaren 26an, Durangoko Plateruenetik abiatuko dute, 21:30ean, AEBetako blues musikatik hip hop errimetarainoko bidaia musikala. Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleek osaturiko Bart... Sax! saxo taldearen eta Beat Salad hip hoparen inguruko kolektiboaren elkarlanetik sortutako proiektua da *Koloretako etorkizunerako... Go B(l)ack* izenburukoa. Bihar Larrabetzun (Bizkaia) estreinatu eta gero, Durangon eskainiko dute, datorren barikuan, emanaldia.

Kotoi plantazioetan sorturiko blues doinuetatik saloietako *ragtimera*; New Orleanseko *dxietik*, swing eta *big banden*

Bluesetik hip hoperainoko bidaia musikala, Plateruenetik abiatuta

Ekainaren 26an joko dute Bart... Sax! taldeak eta Beat Salad kolektiboak

musikara; soul, rock eta jazzetik esperimentaziora eta hip hopera bidaiatzera gonbidatuko dituzte, datorren barikuan, Plateruenean elkartzen diren entzuleak. Ikuskizunak ordu eta erdi iraungo du.

Durangoko Bart... Sax eta Beat Salad taldeetako jatorri eta adin askotako 22 musikaririk parte hartuko dute emanaldian, zuzeneko musika, ahotsa eta soinu efektuak uztartuta.

Ekimenaren bultzatzaileek azpimarratu dutenez, “gaur egun entzuten dugun musika gehienak XIX. mendeko musika amerikarrean ditu sustraiak, eta komeni da historia ezagutzera”. Izan ere, gaur egun askori apurtzaileena eta berritzaileena iruditzen zaiena beste batzuek egin zuten 60ko hamarkadan; sintetizadoreak, *loop*ak edo *inpro*ak erabiltzea, esate baterako. “Ikasleei zein publikoari

horren berri ematea funtsezko iruditzen zaigu”, dio Itziar Castriño Bart...Sax! taldeko kide eta Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako irakasleak.

Durangoko musika eskolak Plateruenean antolatzen dituen *jam session* saioetako batean ezagutu zuten elkar Bart...Sax! taldekoek eta Beat Salad kolektibokoek, eta horrela sortu zitzaizen elkarrekin proiektu hau abiatzeko grina.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA PLAZA

Bertsolaria



Egia bat (ez) esateagatik

Joan zen astean, Iratxe Retolaza idazle eta literatur kritikariaren berbaldi bat entzuteko aukera izan nuen: *Harrizko Arestiren arrakaletan barrena*. Gabriel Arestiri buruz baino, idazlearen irudiaren eta obraren transmisioaren gainean aritu zen Retolaza; haren ustez, transmisio ekintzak berak (edozein dela ere gaia) diskurtso bat eraikitzen baitu, eta kontatzen denak besteko inportantzia baitu isiltzen denak. Euskal Herriko korrante politiko kontrajarriek Arestiren apropiazio moduko bat egin dutela esplikatu zuen, adibidez; zelan alderdi guztien ikur den gaur egun, baina, era berean, bakoitzak poetari buruz komeni izan zaiona bakarrik helarazi duen. Atera kontuak, Felipe Borboikoak ere bere koroatzean aitatu zuen eta!

Retolazak azaldu zuen lez, poesia soziala eta politikoa maskulinitatea eraikitzeko modu bat izan dira, bilbotarren esaldi gogoangarrienak horren adibide: “Egia bat esateagatik, alabak hil behar bazaizkit, andrea bortxatu behar badidate, etxea lurrarekin berdindu behar bazait (...) ez naiz isilduko.”

Nola literaturan, hala gerran, lurraren konkista sarri parekatu izan da emakumearen gorputzaren inbasioarekin eta gaur egun, oraindik, biolentzia sexuala da gerrarako armarik erabilienetakoa. Gurean ere, zergatik hitz egin da hain gutxi 36ko Gerra Zibilean bortxatu zituzten ehunka andrazkoek? Arestiren pasarte horretan agertzen den moduan, gizonezkoen ohorea zegoelako jokoan.



Durangoko musika eskolako ikasleek osatzen dute Bart...Sax taldea.



Beat Salad kolektiboko hip hop kantariak ere parte hartuko dute emanaldian.

Iurretako kale eta plazetan antzerki eta musika emanaldiak, asteburuan

Atzo hasi zen Iurretako IX. Kalez Kale Antzerki Jaialdia, Markeliñeren lanagaz



'Lo que nos dejaron' zirku ikuskizuna eskainiko dute bihar, Amilburun.

> ANTZERKIA

Eguraldi epelagaz, kalean, aire zabalean, arte eszenikoez gozatu gura dutenentzako doako hainbat emanaldi eskainiko dituzte, asteburu honetan, Iurretan. Izan ere, Kalez Kale antzerki jaialdiaren bederatzigarren edizioak herriko hainbat kale eta plaza hartuko ditu. Zornotzako Markeliñe taldearen *Andante* obragaz hasi zen egitaraua, atzo, eta gaur eta bihar bi emanaldi izango dira.

Asier Kidam magoa eta Trapu Zaharra antzerki taldea dira

gaurko gonbidatuak. 18:00etatik ariko da Kidam, Dantzari plazan, eta *La Conga* umore beltzeko ikuskizuna eskainiko du Trapu Zaharra taldeak, 20:00etan, Askondon. Bihar, *Lo que nos dejaron* zirku ikuskizuna eskainiko du Sainete taldeak, 18:00etan, eta, 20:00etan, Salitre taldearen *Rico rico* izango da ikusgai. Etzi, Patxin eta Potxin pailazoen saioak itxiko du egitaraua.

Musikaren egunaren harira

Musikaren Nazioarteko Eguna-gaz bat eginda, hainbat hitzordu antolatu dituzte Iurretan. The Upper Room taldearen gospel emanaldia izan zen atzo, Banda Ruddes & Rebels taldea ariko da domekan, 12:00etatik aurrera, eta, 22an, danborrada eskainiko dute Maiztegi eskolako umeeek.

BIZI BARATZEA
garaian garaikoa garaiz.
Jakoba Errekondo

ANBOTOren irakurleen artean Jakoba Errekondoren 'Bizi baratzea' liburuaren 2. edizioko 4 ale banatuko ditugu.

Bidali zure datuak zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo Bixente Kapanaga, 9 48215 Iurreta, helbidera.

anboto
komunikabideak

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

EKAINAK 19
20:30ean
DURANGALDEKO III. KOPLA TXAPELKETA

EKAINAK 26
21:30ean
BART...SAX!
SAX BIG BAND & BEAT SALAD

EKAINAK 27
19:00etan
JORGE ETA DEIENE DANTZA

Mikel Pradera (Mallabia, 1975) | Igor Astarloa (Ermua, 1976) | Gorka Arrizabalaga (Mallabia, 1977)

“Zaletasuna bai, baina aurrean ate guztiak itxita ikusiz gero, gaitza da”

Txirrindularitzaren loraldia bizi izan zuten, eta profesioaletan aritu ziren; orduko eta gaur egungo errealitateak ez dutela zerikusirik uste dute: “Ez dago gora egiteko talderik, hori da arazoa”



Mikel Pradera, Igor Astarloa eta Gorka Arrizabalaga, Mallabian.

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Joan zen barikuan, Mallabiko hitzaldi batek herriko hiru txirrindulari batu zituen. Pradera eta Arrizabalaga bertakoak dira, eta Astarloa aita du mallabitarra. Atzoko eta gaurko kontuez aritu ziren. ANBOTO-rako ere ariketa bera egin dute, eta gaurko egoerak atzokoaren distirarik zergatik ez duen aztertu dute.

Zelan joan zen hitzaldia?

Mikel Pradera: Ondo. Gainera, gure sasoi jende asko egon zen: zuzendari izandakoak, lagundu zigun jendea... Gure gaztetako argazkiak ere izan ziren. Batzuetan, 11 urte genituen. Haiei begiratuta, denbora joan egiten dela konturatzen zara.

Gorka Arrizabalaga: Sasoi hura zelakoa zen gogoratzeko balio izan zigun. Lau-bost gurasoren artean Carnicas Mallabia taldea sortu zuten sasoiaren, han ibili ginen hirurok.

Mallabiko talde hark asko lagundu zizuen?

M.P.: Duda barik. Giro oso ona zegoen. Txirrindularitza munduan ez ziren adituak, baina borondate itzela zuten.

Igor Astarloa: Lasterketa egun-pasa egiteko aitzakia ere izaten zen; hortik zehar bazkaldu, arratsaldea igaro...

Zuen gaztetako txirrindularitzaren eta gaur egungoaren artean alderik nabari duzue?

M.P.: Nire sentipena da gure sasoi txirrindulariek gauzak serioago hartzen zituztela, baina gu baino zaharragoak direnek seguruena gauza bera esango dute gugatik. Baina ni oraindik txirrindularitza munduan sartuta nabil, eta iruditzen zait askori ardura puntu hori falta zaiela. Gauzak berez irteten direla uste dute, eta ez da horrela.

I.A.: Bai, lorpenak ez dira zerutik berez erortzen. Nik ez dakit zergatik den, bizitzeko modua aldatu delako, erraztasun handiagoak dituztelako... Nik nire ibilbidean ikasi dut, sarritan, sakrifikatuz gero ere ez direla lortzen emaitzak. Beraz, erabateko ahalegin hori barik... Bestalde, gaur egun txirrindulari gutxiago ere badabil. Gure sasoiaren, 300 bat gazte batzen ginen Bizkai mailako lasterketetan, eta gaur egun erdiak batzen dira...
I.A.: Ermuan, autobus asko joaten ziren lasterketetara.

M.P.: Gazte mailakoen kopurua %60 jaitsi da iazko datuen arabera. Gure sasoiaren, Bizkai mailan 300 batzen ginen, eta, gaur egun, asko jota 100 batzen dira. Eta Euskal Herri mailan 180 bat.

G.A.: Kirola egiteko aukera gehiago ere badago. Gure sasoiaren, futbola, txirrindularitza eta kirol gutxi batzuk gehiago zeuden aukeran. Gaur egun, aukera zabalagoa da.

“Txirrindularitzan gaztetatik aritzeak errepidea ‘irakurtzen’ laguntzen du”

Zer egin daiteke zaletasuna berripizteko?

M.P.: Batzuek diote dopingagatik dela, baina, nire ustez, hori lelokeria bat da. Gurasoak ez dabilta horretan pentsatzen. Gurasoek ikusten dutena da errepidea arriskutsua dela.

G.A.: Istripu asko daude, trafikoa asko ugartu da...

M.P.: Nik sarritan esaten dut egin beharrekoa justu kontra-

koa dela. Seme-alabak gaztetatik txirrindularitzan sartzeak onura dakar etorkizunera begira, errepidea irakurtzen ikasten dutelako. Entrenatzeagaz bakarrik ere ikasi egiten da. Gainera, eskola batean gazteak babestuta joaten dira aurretik zein atzetik auto bat dutela. Autoa gidatzera ko orduan niri pillo bat lagundu dit bizikletan ibili izanak.

G.A.: Zirimiri egiten duenean, bidegurutzeetan... Azken batean, urte askoan errepideko elementurik makalena izan gara, eta beste batzuek egiten ez dutena, une oro arreta mantentzea, geuk egin behar izan dugu. Errepideko egoera askotan hobeto moldatzen ikasten da horrela.

Errepideko arriskua da txirrindulari kopuruan eman den beherakadaren arrazoietakoa bat?

M.P.: Baietz uste dut.

G.A.: Errazena da mutiko edo neskatu bati zapatilak erostea eta kiroldegi batera eramatea.

M.P.: Pilotalekuan pilotan utzi, ondoan kafetegia badago bertara joan, eta gaztetxoak une oro dago kontrolpean. Errepidean autoak eta kamioiak dabilta.

I.G.: Nik kirol gehiago probatu nituen txirrindularitzaren au-

rretik, baina honegaz geratu nintzen, eskaintzen zidan askatasunagatik.

M.P.: Ni baserrikoa nintzen, eta 12 urte gaz, batera zein bestera joateko, bizikletak kristoren askatasuna eskaintzen zidan. Horrela hasi nintzen.

G.A.: Eta inguruak ezagutzeko asko balio du. “Gipuzkoako herri hau ez dut ezagutzen”, pentsatu, eta entrenamendua paisaia horietatik egiten duzu. Toki pillo bat ezagutu ditut. Uste dut ehun kilometroren barruan dena ezagutzen dugula.

Zelan baloratzen duzue Durangaldeko bizikleta eskola sortzea?

M.P.: Ez zegoen beste aukerarik. Talde askotan gazte gutxi zebilen, eta orain ganorazko eskola eta egitura dago. Egokiena talde bakoitzean gazte asko egotea litzateke, baina... Kantitate faltak kalitatean eragin behar du nahitaez. Eta taktika aldetik ere bai. Hogeitaz lasterketetako mugimenduak eta taktikak aberatsagoak dira, esaterako; bost talde gazte, ez hainbeste.

Zelan ikusten duzue gaur egungo euskal txirrindularitza?

I.G.: Ez dago talderik, hori da arazoa. Caja Rural eta Movistar. Horrela zaila da.

G.A.: Gure sasoiaren, ostera, seizazpi talde zeuden.

M.P.: Afizionatuetakoa da urterik zailena. Gazte mailan, oraindik, denboraldi amaieran ibilaldi bat egingo dutela esan, eta motibatu egiten dira. Baina afizionatu bati profesioaletara pasatzeko zer aukera duen azaldu behar diozu. Eta errealitatea zein den ikusita...

G.A.: Aurrean ate guztiak itxita ikusten badituzu, gaitza da.

M.P.: Unibertsitatean karrera bat ikasten ibili eta ia irteerarik ez duela jakiteagaz konparatu daiteke egoera.

G.A.: Profesioaletara pasatu ginenean, hamabost txirrindulari inguru Iurretako plazan elkartzen ginen, entrenatzeko: Ajuria, Bugallo, Silloniz anaiak, Etxebarria, Zarrabeitia, Mayo, Horrillo... Gaur egun, Durangaldean zenbat txirrindulari profesional daude? Oso gutxi.

I.G.: Ikuspegi ezkorra da, baina errealitatea horrelakoa da. Azken urteetako krisiak ere eragingo zuten.

M.P.: Azken batean, diru kontua ere bada. Profesioaletan talde asko badaude eta ondo ordaintzen badute, hamar urte barru txirrindulari mordoa egongo dira eskoletan zein profesioaletan.

Silvia Trigueros eta Eider Gorritxategi mendi lasterketen Espainiako txapeldun

Durango Kirol Taldeagaz 35 urtetik gorakoan eta juniorretan jantzi dute txapela



Durango Kirol Taldeko emakumeen taldea. DKT

> KORRIKA Joseba Derteano Durango Kirol Taldeak sekulako emaitzak lortu ditu Mendi Lasterketen Espainiako Txapelketan. Joan zen asteburuan, Esgosen (Ourense, Galizia)

jokatutako proban, Silvia Trigueros abadiñarra 35 urtetik gorako proban nagusitu zen, eta Eider Gorritxategi durangarrak junior mailako txapela jantzi zuen.

Bakarkako lorpenak ez ezik, taldekako emaitzak ere azpimarragarriak izan ziren: emakumeetan zein gizonetan, bigarren geratu zen Durango Kirol Taldea, eta, beraz, Espainiako txapeldunorde geratu zen. Gizonetan, Durangaldea Running taldeak ere merituzko bosgarren tokia lortu zuen taldekako sailkapenean.

Emakumeen probak zortzi kilometro izan zituen. Garazi Sampedro atxondarra izan zen Durango Kirol Taldeko lehena, hamahirugarren tokian: 46.24. Ondoren, Silvia Trigueros helmugaratu zen (46.51), eta Eider Gorritxategik hemezortzigarren tokian amaitu zuen: 49.32.

Gizonetan, Oier Ariznabarreta durangarrak seigarren amaitu zuen (51.11), eta probako errekorra hobetzetik segundo bakarrera geratu zen, nahiz eta ez zegoen bere sasoirik onenean. Ibon San Miguelek, Ekaitz Kortazarrek eta Aitor Mimenzak ere puntuak batu zituzten Durango Kirol Taldearentzat.

Bilbokoaren ostean, Zarauzko proba irabazi du Fradesek

> TRIATLOIA

Orain hiru asteburu, Bilboko triatloia bere ibilbide profesionalean lehenengoz irabaztea lortu zuen Gurutze Frades iurretarrak, eta, joan zen asteburuan, kasta handiko triatleta dela erakutsi zuen beste behin, Zarauzko triatloia irabazita.

Igeriketako tartetik lehenengo sailkatuarekiko bost minutuko atzerapenagaz irten



GURUTZE
FRADES

zen arren, handik aurrera hortzak estutu zituen, eta atzetik aurrerako bidea hasi zuen. Bizikletako tartean aldea murriztu, korrikako hoge kilometroetan zehar lider jarri, eta bakarrik helmugaratu zen.

Bestalde, Triatloien Nazioarteko Batasunak (ITU) asteon jakinarazi du 2014ko rankinga, eta Gurutze Frades bigarren kokatuko dago.

tean, Durangaldean zeharreko ibilbideari ekingo diote. Horrela, eskualde osoko errepideetan ikusi ahalko dira Durangora etorritako autoak.

Landako erakustazokara bueltan, auto klasiko guztiak 13:30etik 19:30era ikusgai egongo dira bertan. Aurtengo erakusketa Juanjo Aurrekoetxearen oroimenezkoa izango da.

Auto klasikoaren erakusketa, bihar, Landakon

> AUTOAK

Eskuko Racing eskuderiak Auto Klasikoaren V. Erakusketa antolatu du zaturako. Elkargunea Landako erakustazokan jarri dute. Auto guztiak batu os-



lazio erakustaldiko une bat. Eskukoracing

20 urteko Niewiadomak irabazi du Emakumeen Bira

Segundo bateko aldeagaz nagusitu da poloniarra

> TXIRRINDULARITZA

Rabo Liv taldeko Katarzyna Niewiadoma poloniarrek irabazi du aurtengo Emakumeen Bira. 20 urteko poloniarrek txirrindularitzan etorkizun oparoa izan dezakeela erakutsi du. Emozioz betetako Bira izan

da aurtengoa. Azken etapan erabaki zen irabazlea. Niewiadoma eta Ashleigh Moolman-en artean segundo bakarraren aldea zegoen, Johansson hiru segundora zelatan zutela. Testuinguru horretan, Markina-Xemeingo etaparen bigarren zatian

ADITUAREN TXOKOA



Eneritz Iturriaga

BZK taldeko txirrindularia

Emakumeen Bira

Oraindik joan zen asteko nekeak gorputzean eta aurpegian daramatzagu. Bai, hementxe bertan, Emakumeen Bira izan genuen; gure neskek Euskal Herriko errepideetan aupadak, animoak eta euskal zaleen berotasuna hartzen ibili ziren.

Betiko lez, guk hankak lurrean ditugunez, etxeko lasterketa amaitzeagaz poz-pozik gaude, baina beste batzuek irabaztea ala irabaztea zuten buruan, eta han izan zen borroka! Ohi bezala, Rabobank taldea zen faborito. Vos eta Ferrand-Prevot ez zirenez etorri, ematen zuten gure Emma Johanssonek berriro irabazi ahalko zuela, baina 20 urteko promesa bat irten zen jo eta su maldan gora.

Gure artean zera pentsatzen genuen: "Guk estimatzen dugu Emma, beti *bigarren mailakoa*, Vosen atzetik urtea joan eta urtea etorri; eta Vos ez bada, Ferrand-Prevot, eta hori ez bada, Van der Breggen. Eta orain, gainera, poloniar ezezagun hau. Azken egunean bere aurpegian ezintasuna eta goibeltasuna ikusi genituen, eta zera pentsatu genuen: "Euren arerioa izanda ezin badaiteke irabazi, euren lagun izan beharko litzateke?". Edo beste komentario hau ere entzun nuen: "Zergatik ez dago pozik podiumean baldin badago?". Erantzuna zein den berak jakingo du, baina nik zera erantzun nien: "Trabazten duzunean sentitzen den zapore gozo hori erakargarria da, eta horretara ohitzen zarenean podiuma ez da nahikoa". Eta, gainera, nor gogoratzen da bigarren edo hirugarren postuaz?"

Zoriondu egin gura ditut lehiatu diren neska guztiak, eman dizkiguten ikuskizun eta lezioengatik. Eskerrik asko, neskek!

Elorriko Errugbi Eguna izango dute, bihar

Helduei zein gazteei zuzendutako ekintzak daude

> ERRUGBIA

Elorri Rugby Taldeak VIII. Errugbi Eguna antolatu du zaturako. 11:30ean, errugbi zelaian batuko dira, eta umeei *rugby tag* izeneko modalitatean parte hartzeko aukera eskainiko diete. Durangoko eta Elorriko errugbi eskolako gazteak ariko dira, baina ekimena errugbia probatu gura duten guztiei zabalik dago. Errugbia sustatzea da helburuetako bat.

Ondoren, bertan bazkalduko dute. 15:30ean, nagusien txanda izango da, eta kuadrillek *rugby tag* modalitateko torneoa jokatuko dute.

Urteroko ohiturari utsiz, herri afariagaz amaituko dute biharko jaieguna, 21:00etan, plazako pilotalekuan. Aurtengo postre lehiaketa bat ere antolatu dute. Afalostean, sari banaketak eta errifaren zozketa egingo dituzte.

Maider Undak brontzea lortu du Europako Jokoetan

> BORROKA LIBREA

Borroka librean eta 75 kilora arteko kategorian, Maider Unda otxandiarrek brontzea irabazi du Bakun (Azerbaijan) jokatzen ari diren Europako Jokoetan.

Lehenengo borrokaldian Zsanett Nemeth hungariarra menderatu zuen: 5-3. Ondoren, finalerdietan galdu egin zuen Vasilisa Marzaliuk bielorrusiarren kontra. Borrokaldia launako berdinketaz amaitu

zen, baina puntuazio sistema berriaren ondorioz, finaletik kanpora geratu zen. Atzo, aldez,




MAIDER
UNDA

brontzerako domina lortzeko borrokan, Maria Selmaier alemaniarra menderatu zuen: 5-2.

eraso asko izan ziren, baina Rabo Liv taldeak lan eraginkorra egin zuen denak bertan behera uzteko. Azken mendatean Niewiadoma bera izan zen erasoia jo zuena, eta laster faboritoen taldetxoa eratu zen aurrean. Taldea elkarrekin heldu zen helmugara, eta esprintean Emma Johansson izan zen azkarrena.

Birako lehenengo euskalduna Eider Merino izan da, bigarrena Ainara Elbusto eta hirugarrena Bizkaia-Durangoko Lourdes Oyarbide.



EGITARRAUA

12:00 OIHAL KATEA

Euskalduna zubia eta Areatza artean
Arrima zaitetz 11:00etarako
zure herriari dagokion tartera!

16:30 SAN MAMES BARRIKO ATEEN IREKIERA

17:30 EKITALDI NAGUSIA

San Mames Barrian

CVRE ESKU BANC



JANTOKIA

*Txahal erre, sahieskiak, bokatak, edariak...
Etxetik ekarritakoak jateko lekua*

13:00 BERTSO SAIOA: Fredi Paya,
Arkaitz Estiballes, Onintza Enbeita,
Etxahun Lekue. Gai jartzailea: Maite
Berriozabal

14:30 KHERAU kontzertua

JAI GUNEA

13:00 TRIKIZIO erromeria


JOLASTOKIA

*Kale animazioa, puzgarriak, umeentzako
tailerrak...*

AREATZA

20:30 OXABI erromeria **ETA LAGUNAK:**

*Xabihoo (Enkore), Ibon (Itziarren Semeak), Francis
(Doctor Deseo), Maria (Siroka), Naroa (Izardi
Gorria), Roberto (Zarama), Miren Amuriza eta
Oihana Bartra, Yogurinha Borova, Tor eta Txorroba
magoak, Mikel Martinez eta Patxo Telleria...*



**gaur hautetsontzia
bihar erabakia
ekainak 21**

BILBO

BAIONA, DONOSTIA, GASTEIZ, IRUÑEA

50.000 baietz!

Erabili garraio publikoa:

Tren zerbitzu bereziak Berriz, Durango eta Zornotzatik;
Bilbora joan eta etortzeko.
Abadiño eta Elorriotik autobusak.

#e21 Ni banoa! eta zu?

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD
Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550€tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETATORRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berriztatuko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bi bizitzako etxea eraikitzeko. 1.100 m2-ko lursaila salgai. Inguru egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bi familiako etxea eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO. Gaztelua: Baserría. Sarrera arku ederra du. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeletxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- DURANGO: Familiabakarreko txaleta salgai lorategiarekin. Igerileku klimatizatua. Ikuspegi ederrak. Inguru pribilegiatua.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Inguru ikusgarria.

ETXEBIZITZAK SALGAI

SAN MARTIN ATARIA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Balkoi 2. Igogailua. Etxe osoa kanpora begira dago. Ikuspegi ederrak. Prezio negoziagarria. **185.000€**.

IPARRAGIRRE



- 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi 2. Ganbara. Igogailua. Prezio negoziagarria. Orientazio ona. **180.000€**.

ERRETENTXU



- 73,43 m2. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komuna, bainugela eta esekitokia. Igogailua eta berogailua. Prezio negoziagarria. **140.000€**.

MARTXOAREN 8KO KALEA



- Erdi berria. BOE. Logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 40 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekua. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. **98.500€**.

BERRIZ



- Etxe osoa kanpora begira dago. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komuna eta trastelekua. Igogailua eta gas naturaleko berogailua. **148.500€**.

ZALDIBAR



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua. Oso egoera onean. **137.000€**.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta 2 komun.
- ARAMOTZ: Halla, 3/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 1/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3/4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRENTENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garajea eta trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARKO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOIA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Lokal komertziala.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Despentsa. Balkoia.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ZEHARKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

ABADIÑO

- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Despentsa. Balkoia.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ANTSO ESTEGIZ



- Atikoa, 30 m2-ko terrazarekin. 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Igogailua. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak. **145.000€**.

F.J. ZUMARRAGA



- 85 m2. 3 logela, egongela terrazarekin eta sukalde handia. Igogailua. Eguzkitsua. 2 kotxerentzako garaje itxia aukeran. **120.000€**.

ELORRIO. LABAKUA



- 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza 2. Berogailua. Leiho berriak. Kale ondoan lonja bat du. **175.000€**.

TXIBITENA



- Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna, sukaldea, egongela eta esekitokia. **110.000€**.

MATIENA



- 4 logela, komun 2, egongela terrazarekin eta sukalde terrazarekin. Ganbara eta garajea. **209.000€**.

SAN IGNAZIO



- Etxebizitza altua. 3 logela, komun 2, sukalde esekitokiarekin eta egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. Etxe osoa kanpora begira dago. Ikuspegi ederrak. **239.500€**.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Pisu ederra, 124 m², 2 logela (hasiera baten 3), sukaldia, egongela, 2 bainugela, trastelekua, ganbara eta garajea. Ikusgarria, bizitzera sartzeko prest. Tel.: 636-41 37 22.

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! la amaituta dago. Sukaldia, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.

Lekeltio. Lekeition, Alde Zaharrean eta itsasoari begira, 3 logelako duplex zoragarria salgai. Tel.: 650-18 33 05.

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako toki eguzkitsua eta ederra, 20.000 m²-ko lursaila. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu 655-70 26 47 telefonora (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera egon badago lursail gehiago eskuratzeko.

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Elorrioren, 50 m²-ko atiko berria alokagai. Logela, sukaldia-egongela, komuna eta igogailua. Prest dago bizitzera sartzeko. Oso polita. Tel.: 631-12 31 06.

Elorrio. Elorrio erdigunean pisu bat alokatzen dugu: 3 logela, 2 balkoi handi eta eguzkitsua, altzariz horniturik, pisua berriztuta dago, eta trasteleku batekin alokatzen dugu. Prezioa: 450 euro. Tel.: 94 658 25 41 / 666-14 75 97.

Elorrio. Apartamentua alokagai herri erdian: logela bat, sukaldia-egongela, bainugela, trastelekua, berogailua-gasa. Eguzkitsua eta bizitzera sartzeko prest. Gueuz deitu. Tel.: 94 682 04 38 (Edu).

ERRENTAN HARTU

Durango. Durangon alokatzeko etxe bila nabil; neska langile eta arduratsua naiz. Logela bateko edo biko etxea nahiko nuke, gehienez 500 euroko alokairuarekin. Tel.: 666-10 05 90 (Whatsapp bidez egun osoan, eta telefonoz 18:00etatik aurrera).

PISUKIDE BILA

Iurreta. Pisukide euskaldun bila nabil, Iurretako plazan dagoen etxebizitza bat partekatzen. Tel.: 626-15 68 17.

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Conil (Cadiz). Conilen etxe urdina alokatzen da oporretarako. 2 logela, komuna, egongela-sukaldia, lorategia eta barbakoa. Inguru oso lasaia, herritik eta autoan hondartzatik hiru minutura. Oso egokia da 4 pertsonentzat. Tel.: 600-59 65 38.

Cambriis (Tarragona). Cambriisen apartamentu bat alokatzen da oporretarako. 2 logela, komuna, egongela handi bat sofa-oherekin, sukaldia elektriko berri berriztua eta terraza handia, 4-6 pertsonentzat egokia. Hondartza 300 metrora eta Cambriiseko portua 500 metrora. Hamabostaldietarako alokatzen da ekainetik irailera. Tel.: 656-78 68 10.

Ramales (Cantabria). Ramalesen etxe bat alokatzen da 8-9 pertsonentzako landetxea. Asteburuetan ere bai. Tel.: 607-68 49 67.

LOKALAK

SALDU

Lekeltio. Lekeition 65 m²-ko lokala salgai. Alde Zaharrean. Tel.: 650-18 33 05.

GARAJE / TRASTEROAK

SALDU

Abadiño. Matienan, Trañabarren kaleko 11.ean. Tel.: 699-00 97 94.

Durango. Trastelekua salgai Astepe auzunean (Durango). 18 m² eta bi altuera, leihoa eta ate berria. Tel.: 665-70 75 35.

ERRENTAN EMAN

Durango. Garajea itxia alokatzen da JM Altuna kalean, Ibaizabal auzunean. Lehenengo solairuan dago, eta aparkatzeko oso erraza da. Tel.: 677-63 06 74.

Teknologia

GAINERAKOAK

SALDU

Hozkailu ia berria salgai. Hozkailu ia berria salgai. 200 euro. Zazpi urte ditu. Tel.: 636-04 63 18 / 94 681 89 47 (Felisa).

EMAN

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioiak LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska euskaldun arduratsua naiz. Tel.: 678-15 64 24.

Durangaldea. Umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 602-80 91 60.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago asteburuetan edo orduka. Tel.: 602-14 49 52.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketan, 08:00etatik 13:30era, barneko langile gisa. Tel.: 631-73 01 44.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut Durangaldean, barneko zein eguneko langile gisa. Tel.: 692-83 80 30.

Durangaldea. Esperientziadun neska lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, zein garbiketan. Tel.: 631-36 95 87.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, zein garbiketan lan egiteko prest nago. Esperientziarekin eta erreferentziekin. Tel.: 646-56 93 90.

IRAKASKUNTZA

Durango. Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohi-turak, motibazioa, plani-

fikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Neska gazte euskalduna lana bilatzen dabil udarako; ekainean arratsalde, uztailan arratsalde, eta abuztuan goizez nahiz arratsalde. Edozein lan egiten dut: umeen zainketa, zerbitzari lanak, garbiketak, basoko lanak, iragarkien banaketa... Prezioa negoziagarria da. Tel.: 688-63 95 47.

LAN ESKAINTZAK

GAINERAKOAK

Abadiño. Petsona 2 behar dira sukaldia eta etxeko altzariak saltzeko. Urte 2ko esperientzia eskatzen da komertzial edo salmenta lanetan. Curriculumak Infojobs webgunean jasotzen dira, Schmidt Abadiano atalean.

Durango. Gure taldean sartu nahi al duzu? Ile-apaintzaile bat behar dugu. Mesedez, bidali zure curriculumak helbide honetara: peluqueriadedurango@gmail.com.

Abadiño. Abadiñon estetizista bat behar da, ile apaintzei ireki berri batean lan egiteko. Tel.: 663-03 80 94 (Miguel).

GAINERAKOAK

Berriz. Berrizko guraso elkarteak begirale lan poltsa osatu nahi du datorren ikasturterako; futbola, saskibaloia, atletismoa, kirol antza, gimnasia erritmikoa eta gimnasia modernoa. Begiraleak euskaldun aktiboak izango dira. Tel.: 653-70 23 33.

LAN ESKAINTZA INGELES IRAKASLEA

Durango hiziuntza-eskola batek ingeles irakaslea behar du. Dinamikoa izan behar du, eta irakasle izateko bokazioa eta haurrekin lan egiteko motibazio handia eduki behar ditu.

Baldintzak: unibertsitate titulua (Irakaskuntza ingeles espezialitatean, Ingeles filologia edo Itzulpen gintza eta interpretazioa) eta ingelesa (gutxienez, Advanced-CAE titulua).

Tel.: 609 533 343

Denetarik

EMAN / HARTU

Ardi moztailak Durangaldeen. Ardi moztailak. Tresneria elektriko propioa. 35 urteko esperientzia, Zeelanda berriko metodoa. Tel.: 94 621 90 07 (Paul) / 667-91 88 71 (Joseba).

GAINERAKOAK

Batxilergoko bigarren mailako liburuak. Bigarren eskuko liburuak bilatzen nabil: batxilergoko bigarren mailako liburuak nahiko nituzke; humanistikoko ere bai. Tel.: 688-63 95 47.

SALDU

Gurpil-aulki elektrikoak saltzen dit. Gurpil-aulki elektrikoak saltzen dit. Tel.: 94 682 04 40.

IX. KALEZ-KALE IURRETAN 2015
Sarrera dohainik

Ekainak 18 Junio 20:00
MARKELIÑE Kaskoan

Ekainak 19 Junio 18:00
MAGOA Asier Kidom Danzari plazan -euskeraz-
20:00 TRAPU ZAHARRA Askonban -erderaz-

Ekainak 20 Junio 18:00
SAINETE Amilburu plazan
20:00 SALITRE Danzari plazan

Ekainak 21 Junio 18:00
POTXIN ETA PATXIN Askonban -euskeraz-

Euria bultzatze aldiak frontoian izango dira.

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 19an, 20:30ean,
Durangoko Plateruenean

Durungaldeko III. Kopa Txapelketa

Durungaldeko zortzi bertsolarik parte hartuko dute Durungaldeko III. Kopa Txapelketan. Afalostean lehiatuko dira, Plateruenean, bi taldeetan banatuta: Areitistak eta Mardaristak taldeetan. Unai Iturriaga, Miren Amuriza, Txaber Altube eta Garikoitz Sarriugarte egongo dira talde batean, eta Igor Elortza, Gorka Lazkano, Aitor Bizkarra eta Peru Magdalena bestean.



Antzerkia

:: IURRETA

EKAINAREN 19an

20:00etan, Trapu Zaharra taldearen 'La Conga' antzezlan, Askondo kalean.

EKAINAREN 20an

18:00etan, Sainete taldearen 'Lo que nos dejaron', Amilburu kalean.

20:00etan, Salitre taldearen 'Gozo, gozo, gozoa', Dantzari plazan.

EKAINAREN 21ean

18:00etan, Potxin eta Patxin pailazoen 'Ipar amerikar indigenak' ikuskizuna, Askondo kalean.



Musika

:: DURANGO

EKAINAREN 26an

21:30ean, Bart...Sax! + Beat Salad, Plateruenean.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 19an

19:00etatik aurrera, Haizetara, herrian zehar.

EKAINAREN 20an

13:00etatik aurrera, Haizetara, herrian zehar.

EKAINAREN 21ean

11:30etik aurrera, Haizetara jaialdia, herrian zehar.



San Joan suak

:: ABADIÑO

EKAINAREN 20an

11:00etan, txupinazoa eta Juantxuren jaitsiera.

12:00etan, dantza modernoaren erakusketa.

17:00etan, jokoak.

19:00etan, tortilla txapelketa.

20:00etan, afari-merienda.

22:00etan, erromeria.

EKAINAREN 23an

22:00etan, San Joan sua, eta, ondoren, txokolatada.

:: BERRIZ

EKAINAREN 23an

21:00etan, Bricadeira taldearen perkusioa, Elizondotik Berrizbururaino.

22:30ean, sua piztuko dute, Berrizburun.

:: DURANGO

EKAINAREN 23an

16:30ean, sua prestatuko dute, San Roke kalean.

19:30ean, 'Cocina vegana del mundo' liburuaren aurkezpena, eta, ostean, San Joan sua, musikagaz, gaztetxean.

21:15ean, Tronperri eta Lajee dantza taldeen emanaldia, San Roke kalean.

12:15ean, su artifizialak.

:: ELORRIO

EKAINAREN 23an

13:30ean, San Joan igoera.

17:15ean, merendola eta Patxin eta Potxin pailazoen ikuskizuna, San Joan basilizian.

22:00etan, su-zezena, sua, eta Jainagaz eta Narbaizagaz erromeria, kiroldegia ondoan.

EKAINAREN 24an

12:00etan, meza eta luntxa, San Joan ermitan.

:: IURRETA

EKAINAREN 23an

17:00etan, puzgarriak, Askondon.

20:30ean, afaria, herriko plazan. Ondoren, erromeria Luhartz taldeagaz.

22:30ean, San Joan sua piztu eta ohiturazko abestia kantatu. Jarraian, erromeria.

:: IZURTZA

EKAINAREN 23an

11untzean, sua piztuko dute, eta, ondoren, barbakoak.

20:30ean, afaria, herriko plazan. Ondoren, erromeria Luhartz taldeagaz.

:: MAÑARIA

EKAINAREN 23an

18:00etan, umeentzako jolasak, plazan.

20:00etan, San Joan sua, txistulariekin.

EKAINAREN 24an

11:00etan, meza eta dantzariak, San Joan ermitan.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 23an

18:30ean, puzgarriak, Zelaieta parkean.

21:30ean, sardina-jana, Nafarroa aparkalekuan.

22:00etan, gaitero eta txistulariak, Nafarroa parkean.

22:30ean, sua piztuko dute, Nafarroa parkean.



Bertsok

:: DURANGO

EKAINAREN 19an

20:30ean, Durungaldeko III. Kopa Txapelketa, Plateruenean.



Euskal Astea

:: DURANGO

EKAINAREN 20an

12:00etan, antzinako erako ezteguaren hasiera, San Agustinetik.

13:30ean, arreoaren aurkezpena, Santa Anan.

14:30etan, bazkaria, musika eskolako berdegunean.

17:00etan, erromeria, musika eskolako berdegunean.



Erakusketa

:: DURANGO

EKAINAREN eta UZTAILAREN

Irati Eguren Arrutiren 'Herrian urperatzea', Arteka liburu dendan.

UZTAILAREN 31ra arte

Enrike Urrutia Capeauren 'Argiaren paisaiak' pintura erakusketa, Arte eta Historia Museoa.



Jaiak

:: MALLABIA

EKAINAREN 20an

16:00etan, umeentzako txokolatada.

17:00etan, briska jokoa.

EKAINAREN 21ean

11:00etan, meza eta Gazte Alai dantza taldearen saioa. Ondoren, Garikoitz Sarriugarte eta Felipe Zelaieta bertsolarien saioa, herri kirolak eta umeen jolasak.

18:00etan, asto probak.



Tailerra

:: ZALDIBAR

EKAINAREN 24an

18:00etan, Idoia Arraiza Zabalegiren berbaldia: 'Ligatzen ikasteko tailerra', udaletxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Ahora o nunca

- barikua 19: 19:30/22:00
- zapatua 20: 20:00/22:30
- domeka 21: 18:30/21:00
- astelehena 22: 20:00

Campanilla y la leyenda de la bestia

- zapatua 20: 16:00/18:00
- domeka 21: 16:30

2. ARETOA

Jurassic World

- barikua 19: 22:00
- zapatua 20: 20:00/22:30
- domeka 21: 20:30
- astelehena 22: 20:30
- martitzena 23: 20:00

Ahora o nunca

- zapatua 20: 16:00/18:00
- domeka 21: 16:30

Campanilla y la leyenda de la bestia

- barikua 19: 19:30
- domeka 21: 18:30
- astelehena 22: 18:30

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Requisitos para ser una persona normal

- barikua 19: 20:15
- zapatua 20: 19:30/22:30
- domeka 21: 20:00
- astelehena 22: 20:15

EKAINEN AGENDA

19	Kz GUNEA 09:00 'Cal I' ikastarara. IX. KALEZ KALE 18:00 Asier Kidam magoa '1805', Dantzarin. 20:00 Trapu Zahararren 'La Conga', Askondon.
20	ANDEREBIDE 7:30 Irteera: Atapuerca (Burgos). IX. KALEZ KALE 18:00 Saineteren 'Lo que nos dejaron', Amilburun. 20:00 Salitren 'Gozo, gozo, gozoa', Dantzarin.
21	IX. KALEZ KALE 18:00 Potxin eta Patxin 'Ipar amerikar indigenak', Askondon. NAZIOARTEKO MUSIKA EGUNA 12:30 Musika ikuskizuna herrigunean.
22	NAZIOARTEKO MUSIKA EGUNA 10:30 Umeen danborrada. Jarraian, kalejira Klean Txaranga taldeagaz. IURRETAKO UME ETA GAZTEENTZAKO KULTUR ASTEA IBARRETEXE 10:00-13:00 2-8 urteko umeentzako ludoteka. 16:00 Akrobazia tailerra, izena emateko ekainak 5era arte. 18:00 Irakasleen akrobazia ageraldia.
23	IURRETAKO UME ETA GAZTEENTZAKO KULTUR ASTEA IBARRETEXE 10:00-13:00 2-8 urteko umeentzako ludoteka. SAN JOAN BEZPERA 17:00 Puzgarriak, Askondon. / 20:30 Herri afaria, plazan. Ondoren, erromeria Luhartz taldeagaz. 22:30 San Joan sua piztu, eta ohiturazko abestia kantatuko dute. Jarraian, erromeriak jarraituko du.

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztieneko 14:00ak arteko epea



> Zorionak zure hogeita hama... pikugarren urtebetetzean! Musu handi bat Intza, Irati, Inhar eta aitatzon partez.



> Zorionak, **Intza!** 7 urte betetzen dituzun egunean muxu potolo bat maite zaitugunon partez.



> **Encarnak** ekainaren 20an 92 urte beteko ditu. Zorionak eta primeran pasa zure urteguna!



> Ekainaren 11n **Martzelek** 3 urte bete ditu. Irribarre eta poztazun hori mantendu! Patxo potolo bat etxeko partez. Zorionak!



> 5 urte bete dauz gure etxeko poxpolinak! Muxu handi bat etxeko guztion partez!



> Zorionak, **Josu!** Zu zara familiako athleticzalea! Ondo pasa zure urtebetetze egunean, ekainaren 21ean, zure familaren partez.



> **Izarok** gaur, ekainak 19, 4 urte bete ditu. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure urteguna!



> Ekainaren 16an **Bitorrek** 6 urte egin zituen. Zorionak emon gure deuseguz etxeko guztien partez eta besarkada estu bat Madalenen partez.



> **Enekok**, ekainaren 17an, 24urte bete zituen, eta **Patrik**, ekainaren 15ean, 27 urte. Familiaren partez: zorionak, bikote!



> Ongi etorri, **Nare!** Dagoeneko hasi gara zure etorrera ospatzen. Mila mosu eta besarkada familiaren partez!



> Zorionak, **Ana!** Eta eskerrik asko eman diguzun laguntza guztiagatik! Musu potolo bat Larraitz, Oskar, Paula eta Iratiren partez.



> Zorionak, **Iraia!** Domekan lau urte handi beteko dozuz. Ondo-ondo pasatu ta mosu handi bat etxeko danon partez.



> **Anderrek** 10 urte egin zituen ekainaren 11n. Zorionak, etxeko partez, gure txapeldunari!



> Argazkiko mutile **Martin** da, eta ekainaren 17an 11 urte bete zituen. Zorionak!



> **Oinatz Urizar Aurrekoetxeak** 4 urte beteko ditu datorren domekan, hilak 21. Zorionak familia guztiaren partez eta ondo pasau!



> **Zorionak Lizar!** 2 urtetxo jada, handi-handi eitten zabiz laztana, bibotea eta guzti urten jatzu! Kar-kar-kar! Mosutxo pila etxeko guztion partez.



> Zorionak, **Iraiti!** Etxeko txikiak 6 urte bete ditu aste honetan. 6 urte! Orain esku biak erabili beharko dituzu adina zenbatzeko. Maite zaitugu! Amatxo, aitatz eta Paula.



Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383

> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

> BOTIKAK

BARIKUA, 19 09:00-09:00
Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
ZAPATUA, 20 09:00-09:00
Mugica Andra Maria 9 - Durango
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
09:00-13:30
Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango

Navarro Artekalea 6 - Durango
De Diego Intxaurren 22 - Durango
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Bartolome Gabiola 2 - Berriz
Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio
09:00-14:00
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
DOMEKA, 21 09:00-09:00
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
ASTELEHENA, 22 09:00-09:00
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTITZENA, 23 09:00-09:00
Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
EGUAZTENA, 24 09:00-09:00
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
EGUENA, 25 09:00-09:00
Navarro Artekalea 6 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

> EGURALDIA

ZAPATUA	10° 21°	
IGANDEA	13° 23°	
ASTELEHENA	15° 25°	
MARTITZENA	13° 25°	



CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala

MATRIKULA





IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

Beste jarduera batzuk:
kultur ekitaldiak, irteerak...

Matrikula egiteko ordutegia:
Astehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-20:00. Ostiraletan: 09:00-12:00

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak
- Informatika
- Ingelesa, frantsesa, euskara (hasiera-maila)

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
Ekainaren 15etik 30era eta irailaren 1etik 15era

“Urtero saiatzen gara aurretik ikusi gabeko lau ogibide erakusten”

Zapatu honetan, antzinako ogibideen eskutik Erdi Aroko giroan barreiatuko da San Agustin elizpea

> AKUILUA Aitziber Basauri Olazar elkartearen eskutik, Erdi Aroko giroa ekarriko dute gogora Elorrioko Etxebarriako San Agustin auzoan. VII. Antzinako Ogibideen Erakusketa antolatu dute, urte birik behin egiten duten hitzorduari hutsik egin gabe. Umeentzako taillerak (arku-tiroa eta jostailu tailerra, adibidez) eta hegazti harraparien erakustaldiak antolatu dituzte. Eguerdian, txerria erreko dute.

Zelan sortu zen antzinako ogibideen erakusketa? San Agustin elizatea sortu zeneko 950. urteurrenaren bueltan sortu zen, duela hamabi urte. Hasieran, Erdi Aroko azoka legez antolatu genuen, baina, inguruan horrelako hainbat zeudela ikusita, buelta bat eman genion, helburu

pedagogiko bat eman gura izan genion.

Antzinako ogibideak ezagutzeko aukera emanez... Horrela da. San Agustin elizpearen bueltan, jostailuak, taloak, gazta, koltxoiak... zelan egiten diren ikusi genezake.

San Agustin elizaren inguruan egiteak

badu bere zergatia? Garai batean, elizaren inguruan batzen zen botere politikoa eta erlijiosoa. Inguru publikoa zen. Azoketan egiten den bezala, salmenta guztiak egiten ziren bertan; baserritarrek ere bertara eramaten zituzten produktuak. Trukerako lekua zen. Leku aproposa iruditzen zaigu.

XI. mendekoa da San Agustinen sortze-akta. Tabirako kondeek emaniko lurretan Etxebarriako San Agustingo monasterioa izan zena eraiki zen.

Horrela da; hori gogoratzeko antzezpina egingo du Marmaru antzerki taldeak, arratsaldean. Aurretik egun osoa izango dute giroa berotzeko Marmarukoek.

Historia zabaltzeko era ere bada orduan. Bai. Sasoi batean, Durangaldea Nafarroako erreinuaren parte zen, eta, Gernikako Foruaren aurretik, Durangaldeko Laborarien Forua zegoen, Nafarroako errege-erreginek ekarritakoa. San Agustinen zegoen hori. Beste urteren batean hori ere ekarri dezakegu gogora: eliza honetan azaldu zen agiri hori, eta balioa emateko aukera izan daiteke.

Zer ogibide ikusteko aukera egongo da?

Finean, baserri inguruko ogibideak erakutsiko ditugu: zorrotzailearena, artileak egi-

ten zituenarena, nekazariarena... Aurten, kristalgintza ere erakutsiko dugu. Belar biltzalea eta errementaria ere izango ditugu, eta azken horrek metro biko hauspoa ekarriko du hori nola erabiltzen den erakusteko. Taloak, sagardoa eta gatza ere egingo ditugu; horretarako Leintz Gatzagako ura ekarriko dugu. Artilezko koltxoia eta belar-meta ere egingo ditugu. Urtero saiatzen gara aurretik erakutsi bako lau bat ogibide erakusten.

Zenbat jende batzen zarete? Hogei ogibide erakutsiko ditugu, zazpi Arbaso elkartearen bitartez, eta beste hamahiruak auzotar eta elorriarren parte-hartzeren bidez.

Elorrio merkataritzagaz lotu izan da... Burdinagaz lotutako jarduna izan da, batez ere. Errotariak eta teila egileak ere asko izan dira. Horren erakusle, errementariak Leizen aurkitutako pika baten erreplika egingo du, eta, bustingileak, baserri baterako teila. Bizkaiko azken telleria ere badugu Elorrioren; berreskuratuz gura genuke, baina...

San Agustin elizara bisita ere egingo duzue.

Bai, iaz ere egin genuen, eta arrakasta itzela izan zuen. Oraingoan hobeto antolatuko dugu. San Agustin elizaren historia ekarriko dugu gogora; larregi luzatu barik. Lurron jabe ziren Tabirako kondeen gorpuak ikusteko aukera ere aztertzen gabilta; 12:30ean izango da hori.



LAUHORTZA

JOSE GARAIZABAL

Irakaslea



Balantza zalantzan

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren lehenengo atalean hau esaten du: Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira eta duintasun eta eskubide berberak dauzkate.

Baina berdintasuna neurten duen balantzak aspaldian badauzka nahikoa zalantza.

Europar batek Afrikako herri batera joan nahi izango balu, ez luke arazorik izango. Ez litzaioke gauza bera gertatuko hango bati Europara etorri nahi izango balu.

Europarrek lasai-lasai ustia ditzakete Afrikako ondasunak. Kongoko Errepublika Demokratikoan 1997tik gaur arte koltana lortzeko sortu duten gerran lau milioi pertsona hil dira. Imajinatzen duzue kongoar bat Europako edozein herritan edozer gauza ustiatzen?

Balantzak dantzan, zalantzan jarraitzen du.

Agintariak agintean mantentzeko armadak eta polizia dauzkate. Armadak eta polizia armak agintzeko eta ingurukoak beldurtzeko besterik ez dira.

Mexikon 43 ikasle desagerrarazi zituzte. Zer egin dute Europako agintari demokratiko guztiak eta herriaren zerbitzura leudekeen armada eta polizia?

Gurari garrantzitsuenak ezin ditugu erabaki, lege santuak horrela diolako. Gerraren bidez hartutakoa, sakratua, mugiezina da. Boterearen iruzur basatiak gozotasunez tapatua eta isildua dirau demokratikoki aukeratu ditugun politikoei esker.

Hau guztia gertatzen den bitartean, gu isilik, mutu.

“Balantza, norantza, zalantza, / balantzaren orratza, / orratzaren dantza, / bilintzi-balantza, / iruzur antza. / Eta gure indarra non datza?”



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com





Matrikulak Batxilergoa
Ekainaren 22tik uztailak 6ra

Matrikulak Zikloak
Uztailaren 16tik 21era

Baxilergoa, Goi-Maitako Heziketa-Zikloak, Erdi-Maitako Heziketa-Zikloak, Oinarriko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza







Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!